

Lourdes Mendiñueta

errefuxiatua

«Jendeak ez daki
zer bizi izan dugun,
zer falta zaigun,
zer esperantza
dugun»

- **Medikuntza** Farmazeutikek sendagaien ezagutza zientifikoa desitxuratzen dute
- **LOMCE, mahai-ingurua** EAJ, EH Bildu eta PSE legeari aurre egiteko moduz
- **Net Hurbil** Gerra hegazkina urrundik kontrolatzen duen pilotu baten damua
- **Mikel Taberna**, *Alkasoroko benta* liburuaz «Zenbaitek ez du behar adina estimatzen bere euskalkian zer altxor duen»

Ingurumenarekiko konpromisoa



Guztionean... ura, airea eta zoria zaindua, ingurumena babestea, lurraldea antolatzea, haurrei irakastea, ohiturak aldatzea, hondakinak gutxitzea, mugikortasun jasangarria bultzatzea, garapen ekonomiko naturala sustatzea, erantzukizunez erostea, lehengaiak aurrezteak, osasunez elikatzea...



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko ekainaren 9a, 2.372. zenbakia

ASTEKO GAIA

SENDAGAIK Saio klinikoetatik datorren informazioaz ezin fidatu. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

LOURDES MENDINUETA: «Errefuxiatua izatea errailetan bete ezin duzun hutsune bat etengabe sentitzea da».
SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

LEIRE CANCIO, ELHUYARREKO ZUZENDARI NAGUSIA:

«Gazteek ez dezatela pentsa AEBetan ikertzen dela nanoteknologia». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 15

IRITZIAREN LEIHOA

SUEDIA, MITOAREN AMAIERA ASIER BLAS MENDOZA / 18

FEMINISMOA MODAN CLARA WOLFRAM / 20

DATORREN ONGIZATE ESTATUA: ZUBIRIK GABEKO

IGAROALDIA GORKA MORENO MÁRQUEZ / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Zentzumena. IXIAR ROZAS / 20

BERTSO BERRIAK Abortu eskubideari. UXUE ALBERDI / 21

ZIRTA Dabrakotea enbargoyokua bezala. BEÑAT SARASOLA / 22

ERDIKO KAIERA

MIKEL TABERNA: «Federico Fellinik bere *Amarcord* zoragarrian lortzen duenaren moduko zerbait egin nahi nuen».

MIEL A. ELUSTONDO / 23

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 27

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 28

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

IHESI AMASA-VILLABONA (GIPUZKOA) Soka beraren bi mutur. ENERITZ IRAOLA ODRIÓZOLA / 32

OSASUNA FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

LOMCE Oposizioaren kontsentsua edo planto egiteko modua ezbaian. MIKEL ASURMENDI / 37

ARABA EUSKARAZ Aresketa ikastolan erabilera da helburu.
MIEL A. ELUSTONDO / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL Obamaren gerra bideo-jolasa balitz, orduan bai ondo. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Saio klinikoetatik datorren informazioaz ezin fidatu

Enpresa farmazeutikoen kontrako salaketak ez dira kontu berria, baina Ben Goldacreren *Bad Pharma* liburuak aspaldiko partez ez bezalako indarrez jarri du gaia mahai gainean. Funtsean, liburuak dio medikuek ez daukatela modurik sendagaien gaineko jakintza guztia ezagutzeko. Batetik, datu zientifiko asko ezkutuan gordetzen direlako; bestetik, probasaio kliniko askoren emaitzak saioaren diseinu ustelak berak desitxuratzen dituelako.

| UNAI BREA |

GAITZ ARIN edo ez hain arin batek jota medikuarengana bazoaz, oso litekeena da sendagai baten errezeta eskuetan duzula irtetea haren kontsultatik. Uste duzu, uste nahi zenuke, zure gaitza tratatzeko bitartekoei buruz eduki daitekeen informazio guztia daukala zure sendagileak. Baina ez da egia. Medikuek ez dituzte eskueran botikei buruzko ikerkuntzaren emaitza guztiak, ikerkuntza hori egiten dutenek zati bat, zati

esanguratsua, ezkututzen dutelako; norma-lean, haien interesen kontrakoa dena. Sendagai berriak probatzeko egiten diren saio askoren emaitzak ez dira argitaratzen, eta hori askoz sarriago gertatzen da aztertutako molekulak funtzionatu ez duenean. Beste batzuetan, argitaratutako emaitzek molekularen onurak puzten dituzte, edota probasaioaren metodologia bera alde zuzenetik desitxuratua izan da, sendagai berriaren

Probasaioei buruzko informazio guztia ez zabaltzeak sendagai baten onurak puztera eramaten du maiz.



DANI BLANCO



Ben Goldacre (1974an jaioa), psikiatra ez ezik, zientzia kazetari ezaguna da Britainia Handian. Bigarren liburua du *Bad Pharma*; iaz argitaratu zen, eta dagoeneko 25 hizkuntzataraz itzuli dute (eskumako irudian, gaztelaniazko edizioaren azala).

onurak handiesteko xedez. Datuak ezkutatzeke beste modu bat, azken beltzean.

“Medikuntzaren eraikina, bere osotasunean eta oinarritik hasita, matxuratuta dago, erabakiak hartzeko garaian medikuek eskura duten ebidentzia sistematikoki desitxuratuta dagoelako. Eta hori larria da”. Ben Goldacre britainiarren *Bad Pharma* (2012) liburuaren lehen orrialdea amaitu baino lehen aurkituko duzu esaldi gogor hori. Goldacre psikiatra da, baina askoz ezagunagoa da zientzian espezializatutako kazetari modura egindako lanagatik. Bigarren orrialderako, xehetasunak ematen hasiko zaigu: paragrafo luze bezain artetagarri batean laburtu du ondoko 300 orrialdeetan esango duen guztia. Merezki du haren zati bat euskaratuta ematea:

Industriak finantzatutako probasaio klinikoetan, oso litekeena da emaitza positiboa izatea; sarri, metodologia makurra erabiltzen da emaitza horretara iristeko

“Sendagaien testak haiek fabrikatzen dituzten berberak egiten dituzte, gaizki diseinatutako probasaioen bidez, [benetako gaixoen] errealtatea behar bezala ordezkatzeko duten parte-hartzaile gutxiarekin eta okerreko teknika metodologikoak erabilita, tratamenduen onurak puzteraino. Ez da harritzekoa probasaio horien emaitzak, usu, sendagai ekoizleen aldekoak izatea. Probasaiook enpresa farmazeutikoen gustukoak ez diren emaitzak dituztenean, haiek mediku eta gaixoei ezkuta diezazkietekete, eta hortaz, horiei iristen zaien farmakoaren benetako efektuari buruzko informazioa desitxuratuta dago. (...) Ebi-

dentzia desitxuratu hori modu desitxuratuaren komunikatzen da. 40 urteko jardunean, fakultatetik irteten eta gero, mediku batek funtzionatzen duten farmakoen berri jasotzen du *ad hoc* eraikitako zenbait tradizioen bidez, bisitatzailerik farmazeutikoen ahotik, beste mediku batzuenetik edo aldiakarietatik. Baina baliteke lankide horiek konpainia farmazeutikoen soldatapean egotea —isilpean, sarri—, aldiakari (...) batzuk bezala. Mundu guztiak objektibotzat dituen aldiakari akademikoak, ez gutxitan, konpainia farmazeutikoenentzat lan egiten dutenek planifikatu eta idatzitakoak dira. Argitalpen guztiz akademiko batzuk enpresa farmazeutikoren batenak dira. Eta, esandako guztiaz gain, gaitz garrantzitsu batzuen kasuan ez dakigu zein den tratamendu onena, ez dagoelako inongo enpresaren interes komertzialen barruan”.

batzuk bezala. Mundu guztiak objektibotzat dituen aldiakari akademikoak, ez gutxitan, konpainia farmazeutikoenentzat lan egiten dutenek planifikatu eta idatzitakoak dira. Argitalpen guztiz akademiko batzuk enpresa farmazeutikoren batenak dira. Eta, esandako guztiaz gain, gaitz garrantzitsu batzuen kasuan ez dakigu zein den tratamendu onena, ez dagoelako inongo enpresaren interes komertzialen barruan”.

Diruaren iturriak probasaioaren emaitza baldintzatu dezake

Ezer baino lehen, hau hartu behar da kontuan: sendagai berrien probasaio klinikoek %90 industria farmazeutikoak sustatzen du; gainerakoak eremu akademikoetan egiten dira. Bigarrenik: industriak finantzatutako probasaioetan, oso litekeena da emaitza positiboa izatea, hau da, saiokaren ondorioa probatu nahi den sendagai berria benetan eraginkorra dela izatea.



ERIK S. LESSER/EPA

Hainbat ikerketaren bitartez frogatu da aurreko paragrafoan esandakoa. 2010ean, Harvard eta Torontoko hiru ikertzailek bost medikamentu motari buruzko azterketa kliniko guztiak –500dik gora– bildu eta ondorio honetara ailegatu ziren: industriak ordaindutakoen %85ek emaitza positiboa zuten; aldiz, gobernuek sustatutakoen %50ek baino ez.

Beste ikerlari talde batek kolesterola gutxitzeko erabiltzen diren estatina izeneko farmako batzuei buruzko azterketak arakatu zituen 2007an. Behatu ahal izan zuten, industriaren eskutik egindako azterketen emaitzak sendagaiaren aldekoak izateko probabilitatea hogeitaz handiagoa zen azterketa independenteetan baino. Eta hirugarren adibidea: 2006an, urte baten buruan lau aldizkari espezializatuk argitaratu emandako sendagai psikiatrikoei buruzko ikerlanei erreparatu zieten. 542, guztira. Finantzaioaren iturria industria zen kasuetan, emaitza positiboak %78 ziren; finantzaio independentekoetan, %48.

Nola liteke?, galdetzen du Goldacrek. Eta erantzun ere bai: hainbat faktoreren arteko konbinazioa da. Batzuetan, probasaioak gaizki diseinatuta daude; gerta daiteke, esaterako, sendagai berria ezertarako balio ez duen zerbaitekin konparatzea, eta ez beste eraginkortasuna frogatuta daukan beste sendagai batekin, edo gerta daiteke probasaioan parte hartzen duten gaixoen selekzioan amarru egi-

Sendagaia izatera iritsi litekeen molekula berria lortu duenean, laborategi batek hainbat proba egin behar ditu, lehenik pertsona osasuntsuekin (I fasea), eta ondoren gaixoei (II eta III faseak). Gero eta gehiago garapen bidean dauden lurraldeetara eramaten dira saioak, eta horrek hainbat arazo sortzen du. Helsinkiko Adierazpenak dio probasaio batean parte hartzen dutenek eskubidea eduki behar dutela saio horri esker merkaturatuko den botikaz gozatzeko. Bistan da, baina, herrialde askotan ez dela hala gertatzen.

tea, bilatzen diren emaitzak errazte aldera hain zuzen. Ohiko beste praktika bat da aurreikusitako epea baino lehen etetea probasaioa, luzatzeak emaitzak okertu ditzakeela susmatuz gero. Itzuliko gara gai horretara.

Falta diren datuen garrantzia

Probasaio kliniko batek dokumentazio kopuru eskerga sorrarazten du, baina medikuek nekez ikusiko dute haren zati handi bat. Bai haiek bai gaixoei bibliografia akademikotik baizik ezingo dute eskuratu sendagaiei buruzko informazioa. Arazoa da, eta hagitx larria da Goldacreraren esanetan, emaitza negatiboak eduki dituzten probasaioen emaitzak askoz portzentaje txikiagoan iristen direla argitalpen horietara emaitza positibodunenak baino. Hainbat arrazoi dago horretarako, eta Goldacrek behintzat ez dio denaren errua inoren fede txarrari egotzi nahi. Gai hori xehe aztertzeke lekuri ez dugu hemen, tamalez. Esan dezagun, egile britainiarraren hitzak geureganatuta –baina ez horregatik erabateko atxikimendua eskainiz– emaitza negatiboak ez argitaratzea “oso jokabide humanoa” dela. Nolanahi den ere, eta arrazoiak arrazoi, jokabide horrek uste baino askoz ondorio txarragoak izan ditzake, segidan ikusiko denez.

1980ko hamarkadan, sendagileak arritmia-
ren aurkako botikak errezetatzen hasi zitzaiz-

kien aurrez bihotzekoa izandako gaixoei. Logikoa zirudien, jakina baitzen antiaritmikoek bihotzaren ezohiko taupadak eragozten dituztela. Jakina zen, halaber, bihotzekoa izan dutenek arritmia garatzeko probabilitate handia dagoela. Baina neurria ez zen uste bezain onuragarria suertatu. Aitzitik, antiaritmikoak edonori errezetatzea zeharo kaltegarria izan daitekeela argi geratu zenerako 100.000 lagun inguru hil zirela kalkulatu da. Okerrena da tragedia hura aurreikusterik bazegoela. 1980an, lorkaidina izeneko antiaritmiko baten saioa egin zen bihotzekoa izandako 95 gizonetakoekin. 48k hartu zuten botika, eta bederatzi hil ziren; plazeboa hartu zuten 47en artean berriz, heriotza bakarra gertatu zen. Saioa bertan behera geratu zen arrazoi komertzialengatik, eta inori ez zitzaion otu azterketa haren emaitzak ezagutaraztea. Hamar urte eta 100.000 hildako eta gero, egileek barkamena eskatu zuten publikoki. Bide batez esanda, gaur egun jakina da antiaritmikoak oso eraginkorrak direla arritmia larria dutenentzat, baina gaitzaren bertsio arina daukatenengan ondorioak oso larriak izan daitezkeela. Izan daitezkeenez.

Askotan, sendagai berri batentzat merkaturatze-baimena lortzeko ez da frogatu behar sendagai hori aurrez daudenak baino hobea dela; aski da ezer ez baino hobea dela demostratzea

Adibidea oso muturrekoa da eragin zuen hondamendiaren tamainari dagokionez, baina ez da isolatua, Ben Goldacrerren berbetan. Eta ordaina ez da txikia: “Ikertzaileek askatasun osoz gorde ditzaketenez emaitzak, gaixoei kalte handiak jasan ditzakete. Medikuek ez dituzte ezagutzen ezartzen dituzten tratamenduen benetako efektuak. Farmakonek egiazki funtzionatzen du ala datuen erdia ezkutatu didate? Auskalo. Merezi du farmako garesti honek ala datuak makilatuak izan dira? Auskalo. Botika hau arriskutsua deneko ebidentziarik ba al dago? Hilko ditu gaixoak? Auskalo”.

Probasaio bat desitxuratzeko hamaika era

Informazioa ezkutatzeko modu bat izan daiteke ez argitaratzea, nola ez. Beste bat probasaioak gaizki egitea da, eta nahita gaizki egiteaz ari gara. Emaitza batzuk lortuko dira, hori seguru, eta probatutako sendagaia efikaza dela ondorioztatutako da emaitzotatik, hori ere ia seguru. Zalantzarik ez izan argitaratuak ere izango dira. Baina probaren baldintzak emaitza positiboa errazteko eraldatuak izan badira, hortik lortutako

Lotsarik sentitu al duzu inoiz iturriko ura eskatzean taberna edo jatetxe batean?



www.grifoterapia.com



Ekogunea
kutxa gizarte ekintza

ura
uraren erabilera

Elaboración y distribución de productos

añarbe
agua pura

Sendagai berria probatzearren, funtzionatzen zuena ukatu

1996an, Pfizer konpainiak Trovan izeneko antibiotikoaren probasaioa antolatu zuen Kano-n, Nigerian, meningitis epidemia betean. Gaixo talde bati probatu nahi zen sendagai berria eman zitzaion; kontrolerako erabili zen multzoari, berriz, Pfizerren lehiakide batek merkaturatutako beste antibiotiko bat eman zioten, baina dosi baxuetan. Antibiotiko horrek frogatua zuen gaitzaren aurkako eraginkortasuna. Hamaika ume hil ziren guztira, gutxi gorabehera kopuru berdina multzo bakoitzean, baina parte-hartzaileei ez zitzaion esan jasotzen ari ziren tratamenduak izaera esperimentalak zeukala, eta are okerrago, ezkutatu egin zieten probasaioa egin zeneko lekuan bertan eskura zutela sendagai eraginkor bat.

Gerora, Pfizerrek zera argudiatu zuen epaitegian: Afrikan egindako probasaio esperimentaletan baimen sinatua lortzera behartzen zuen nazioarteko araurik ez zela existitzen, eta beraz auzia Nigerian baino ezin zitekeela epaitu. Argudioa aintzat hartua izan zen. Alta, 2006an Nigeriako Osasun Ministerioak ebatzi zuen Pfizerrek legea urratu zuela, eta ez herrialde horretakoa bakarrik, baita Umeen Eskubideen NBERen Hitzarmena ere. Azkenik, 2009an, Pfizerrek lortu zuen auzia epaitegietatik kanpo konpontzea, 75 milioi dolarreko kalte-ordainak pagatuz. 1996ko gertakariak, berriz, John Le Carréren *Lorezain leiala* eleberriaren oinarria izan ziren.



Lorezain leiala liburua eta filma 1996an Nigerian egindako probasaio kliniko batzuetan gertatutakoan oinarrituta daude.

ebidentzia zientifikoa ez du zertan mundu errealean, zure medikua eta zu bizi zareten mundu horretan, baliagarria izan. Ben Goldacrek *Bad Pharma*-ren kapitulu mardula eskaini dio probasaioetan –haien portzentaje esanguratsu batean, esan nahi baita– egiten diren jardun irregular horiei.

Batzuk aipatu ditugu dagoeneko, azaletik bada ere. Berbarako, askotan plazebo hutsal batekin konparatzen da sendagai berria, eta ez, momentu horretan merkaturatutako dagoen gaitz horrentzako medikamentu onenarekin. Hau da, ez da eskatzen molekula berria ordu-ra artekoa baino hobea izatea; aski da ezer ez baino hobea izatea.

Beste batzuetan, konparatzeko aukeratzten den faktorea ez da plazeboa, baina bai nabarmenki txarra den aspaldiko botikaren bat. Edo txar-txarra ez den baina ezohiko dosietan

–handiegiak zein txikiegiak– ematen den farmako batekin. Esan gabe doa, konparazioaren ondorioa izango dela aztertu nahi den produktu berria abantailez beteta dagoela. Adibide bat aipatzearren, probasaio batean paroxetina antidepresiboa erkatu zuten amitripilina izeneko sendagai zahar batekin. Amitripilinak logura ematen duenez, medikuek gauez besterik ez hartzeko agintzen dute, baina probasaioan egunean bi aldiz eman zieten gaixoei, eta logaleak jota eman zuten azterketak iraun zuen denbora. Konparazioz, paroxetinak askoz hobea ematen zuen benetan dena baino.

Gaixoak aukeratzean ere amarru egin daiteke. Saio bateko parte-hartzaileak idealegiak izan daitezke, hots, egoera errealetan sendagaia hartu beharko dutenek baino askoz osasun arazo gutxiago dauzkate, eta beraz ez da harritzekoa probasaioan nabarmen hobera egitea. Azterketak egin dira gaitz jakin bat duten pertsonak gaitz horrentzako sendagai berrien saioetarako aurre-baldintzak betetzen ote zituzten jakiteko; ikusi denez, oso portzentaje handi bati galaraziko litzaieke parte hartzea, nahiz eta gero, behin farmakoa merkaturatuta, eurak izango liratekeen haren kontsumitzaile nagusiak.

Beste jardun irregular bat, zientzia onaren izaerarekin guztiz kontrajarria, behin saioa amaituta hasierako helburuak berridaztea da. Jo dezagun probasaio bat abiatzen dela zortzi parametro neurtzeko asmoz eta horietako bi nagusiak direla; hau da, batez ere sendagaiak bi arlo horietan nola eragiten duen jakin nahi dela. Beste seiak, berriz, bigarren mailakotzat jotzen dira. Ikerketa amaitu eta ikus daiteke parametro nagusi bietan emaitza kaskarrak lortu direla, baina oso onak bigarren mailako beste pare batean. Bada, azken txostenean bi horiek bihurtuko dira helburu nagusi. Eta txosten hori da, gehienetan, publikoarengana –medikuak barne– iristen den bakarra. Azken orduko aldaketa horiek ez dira noizean behinako anekdota; hainbat ikerketak demostratu dute oso zabalduta daudela.

Adar gehiago du gaiak, eta Goldacrek –ez berak bakarrik– merezi duten arreta eskaini die. Konparazio baterako, sendagai bat merkaturatzeko baimena ematen duten erakundeen irizpideen kamutsez asko dago esateko; beste horrenbeste, merkaturatu ostean egiten den bigarren mailako efektuen jarraipen eskasaz. Izango dugu aukerarik kontu horiez eta beste batzuez hitz egiteko. Sarean dabilen horietakoa bazara, adi egon hau sinatu duenaren blogari. Besteak beste. ■



SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU
EÑAUT ELORRIETA

Ekainak 14. 22:30tan
Antzizar Pilotalekua. Beasain



LOURDES MENDINUETA

«Errefuxiatua izatea erraiaetan bete ezin duzun hutsune bat etengabe sentitzea da»

“Aupa gizona, jeiki mutil, atzar emazte ta neskatil...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Etxean politikaz hitz egiten zenuten?

Sekula ez. Gogoan dut behin, lehengusina eta bioi, “zuek galtzaileak zarete!” egotzi zigutela. Ezin ulerturik, amari parte eman nionean, “eta beraiek zer arraio irabazi din ate ba!” asaldatu zen. Zurtuta gelditu nintzen. Horiek dira amari politikari buruz inoiz entzun dizkiodan hitz gogorrenak. Gurean ez zen horri buruz hitz egiten. Pentsa, pasadizo horren harira ikertzen hasi eta aitona hiltzera eraman zutela eta herritar baten esku-hartzeak libratu zuela jakin genuen. Kalean eta batez ere eskolan arnasten genuen politika. Eskola Nazionaletan ibili arren, gure maistrak gerla denboran Arbizutik ihes egin behar izan zuen, beste emazte batzuen gisan, ilea moztuta herrian umiliatu nahi zutelako. Historiako klaseetan, “*mentira, mentira!*” oihukatzen zion bere buruari, eta berak bizi izandakoa kontatzen zigun. Bestalde, ikurrina bat zeraman Oldarra dantza taldearen postala gordetzen genuen klasean. Bagenekien debekatuta zegoela, isilik ibili behar genuela, baina ordurako jakitun ginen ikurrina zela gurea, euskaldunak ginela. Zorte izugarria izan genuen maistra harekin. Atera kontuak, eskola berean, gure anaia atzamarretan erregelarekin kolpatzen zuten euskaraz egitearren.

Ikasketak bukatu eta gau-eskolen munduan sartu zinen.

Hori ikasi arren, ez nuen enpresa kudeaketa eta ekonomia arloan lan egin nahi. Euskaltzaindiko titulua atera eta Iruñeko Arturo Campionen hasi nintzen. Orduan ez zegoen

AEKrik, gau-eskolak ziren. Baztan, Sakana edo Iruñerria bezalako eskualdeetan nahiko ongi antolatuta zeuden, baina Nafarroa koordinatu gabe zegoen. Beste herrialdeekin harremanak sendotu eta AEK sortu genuen. Ni izan nintzen Nafarroako lehen liberatua. Autobusa hartu eta Tuterara, Sartagudara, Lerinera, Lizarrara... joaten nintzen bertakoe-kin bildu eta sarea ehuntzera. Ordurako lan anitz egiten zen baina inork ez zuen auzokoren berri. Beldurraren beldurrez Sartagudako klaseak klandestinoak zirela esanda, dena esanda dago, ezta?

Gogoan duzu alde egin behar izan zenuen eguna?

Gaua zen, euria goian behean, eta Iruñean klasea ematen ari nintzela nire lagun baten bila joan zirela abisatu zidaten. Ikasleei ari- ketak jarri, irteteko arazo pertsonal bat argudiatu eta ez nintzen itzuli. 1981a zen, Tejeroren estatu kolpea gertatu berri. Bane-

NORTASUN AGIRIA

1958ko otsailaren 12an sortu zen Arbizun. Enpresa eta ekonomia arloko ikasketak egin zituen Oñatin, eta Nafarroako AEK-ko lehen liberatua izan zen, 1981ean Iparraldera ihesi joan behar izan zuen arte. Bertan urte gogor batzuk pasa eta Kuban hartu zuen lur 1990ean, antzeko egoeran zegoen bikotekidearekin batera. Hogei urtez hantxe bizita, orain hiru urte itzuli ziren Lapurdira, Arbizura bueltatzeko ametsa egunetik egunera hurbilago dagoela sinetsita.



LOURDES MENDINUETA

kien itzulera ez zela erraza izango, etxeratzeko urte batzuk pasako zirela, baina nola pentsatuko nuen 32 urte berantago oraindik Arbizura ezin joanik segiko nuela? Aurrera jo eta borrokatzeak merezi zuela sinetsita nengoen, eta gainera, beldur nintzen poliziak torturatu eta espetxeratuko ninduela. Ez nuen dudatu, Iparraldera etorri nintzen.

Espero zenuena atzeman zenuen bertan?

Edonora iristen zarelarik ere integratu behar duzu. Horrek ez du esan nahi zure sustrai, kontzientzia, pentsamolde eta identitateari uko egin behar diezunik. Alderantziz. Ezin duzuna da kanpotar baten gisan bizi, bertakotu gabe, bertakoez paso eginez. Murgildu behar zara, bertakoein bizi, bertako hizkuntza zeureganatu... Ez da samurra, ordea, norbaiti errefuxiatua zarela esatea. Batzuk fite jartzen dizute gurutzea. Orain irekiagoak gara, baina orduan ghetto moduko batzuetan bizi ginen. Heldu berritan, gure munduan ere jende anitzek ez zekiela euskaraz eta beste asko alfabetatu gabeak zirela jabetu nintzen, eta iheslari eta errefuxiatuentzat ikastaro trinkoak antolatzeari ekin genion. Bidarraien egin genuen lehena, eta Zuberoko Indaue-Mendin bigarrena. Bertan geundela desagerarazi zituzten Lasa eta Zabala, handik jakin genuen Kattu eta Txapelaren aurkako atentatuen berri, eta GAL-en itzalari aurre egiteko neurriak hartzen hasi ginen. Bi orduko zaintza txandak egiten genituen gauero, mendi-bide galdu haietan susmatzen genituen auto arraroak zerrendatzen genituen, baina ez zen aski izan: Tigre erail ziguten. Hurrengo asteak biziki gogorrak izan ziren, orotariko poliziengandik askotariko probokazioak jasan behar izan genituen, eta beste ikastaro pare bat eman bagenituen ere, gerta zitekeenaz jakitun, barnetegiak bertan behe- ra utzi eta Donibane Lohitzuneko AEKn hasi nintzen.

1986an, GAL desegin, baina Frantzia errefuxiatuak kanporatzen hasi zen. Korapilo estuena ere estutu liteke gehiago?

Ordura arte Frantziak paperak ematen segitzen zuenez, hiruzpalau hilabeteko kontua izango zela pentsatu genuen hasieran. Ez zen horrela izan. Gu badaezpada mendira oporretara joan ginen, eta alde batetik bestera berrien zain geundela, ohartu ginen jendea harrapatu ahala kanporatzen zutela. Ezkutatzea erabaki genuen, desagertzea. Urte batzuk egon ginen familiarekin inolako harremanik izan gabe: sei hilabete, zortzi hilabete, urtebete, komunikaziorik gabe. Ez genuen ez dokumentazio ez ezer. Etxeetan zulo batean sartuta bezala bizi ginen. Elkartasun handia jaso arren, espetxean egotea bezalakoa zen hura, ezin genuen horrela jarraitu. Hala, beste modu batera bizitzeko aukera izango genuelakoan, Ameriketara joatea erabaki genuen eta 1990ean Kubara iritsi ginen.

Zure historia ez da zurea bakarrik, zu bezala errefuxiatua den bikotekidearena ere bada, eta nola ez, Kuban izan zenuten alabarena.

Ordura arte, ez genuen sekula familia ekartzeko urratsik eman egoerak eragozten zigulako. Egonkortasuna falta zitzaigun, ez genuen lanerako aukerarik, lasai bizitzeko modurik. Hala ere, Kubara heldu ginenean, Euskal Herrira askoz lehenago itzuliko ginelakoan geunden. Gure familiak ez zekien non geunden, ez genuen harremanik. Pentsa, erditzeaz nintzela ere gurasoek ez zeukaten nire kokapenaren arrastorik. Halako batean, tropikoetako bero hezean izerdi patsetan nengoela, amak bidalitako haurdunontzako pana lodizko peto bat heldu zitzaidan! Urte neketsuak izan ziren. Hogei urtean, behin ikusi ditut gurasoak. Alabak, 18 urterekin Euskal Herrira lehen aldikotz etorri arte, behin baino ez zituen ikusi bere aitona-amonak. Hori bai, bikoteak bihotz-bihotzez desiratu dugu alaba, eta dena eman



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



dugu zoriontsua eta Kuban murgildua bezain euskalduna izan zedin.

Nola bizi da norbere egoera pertsonala baldintzatzen duen egoera politikoa, itsasoaren beste aldean?

Hastapenean ez genuen Internetik eta biziki zaila zen. Hilean behin, 30-31 *Egin* iristen zitzaizkigun, baina jakina, denontzako ziren, eta eskutan hartzerako erabat iraungita zeuden. Gainera, sasoi hartan, Euskal Herrian egunero gertatzen zen zerbait, eta goizetik gauera aldatzen zen panorama. Radio Exterior de España ere entzuten genuen, baina probetxu minimoa ateratzekotan, dena iragazkitik pasa beharra zegoen, izenak ere oker esaten baitzituzten sarri. Zentzu horretan, Internet lortzea sekulako arnasa izan zen. Badakizu zer zen guretzat noiznahi *Gara* edo *Berriaren* webgunean sartu ahal izatea? Goizero, jaiki orduko, kafea hartu eta egunkariak irakurtzen nituen. Pentsa, alabatxoari ama-

txoren mimikak imitatzeke eskatzen ziotenean, kafea hartuz ordenagailua klikatzen irudikatzen ninduen. Albiste gose ginen, behar izan bat zen.

Beti izan duzu garbi Euskal Herrira itzuli nahi zenuela? Kuban 20 urtez bizi izanak ez zizun bertan gelditzeko tentaziorik sortu?

Beti izan dut argi. Behin, bertako lagun batek “hemen ongi zaudete, lasai bizi zarete, alaba bat duzue...” konbentzitu nahi ninduen, baina zerbait eskas nuen, ez nengoen erabat trankil, eta Euskal Herrira itzuli arte ez dut benetako sosegu hori sentitu. Herri handira bueltatu naiz, sosegu oso-osoaz gozatzeko ordea, herri txikira joan ahal izatea falta zait. Kuban, lo hartu aurretik, gauero akordatzten nintzen herriaz, gurasoez, familiaz, lagunez... Alabarekin itsasoari so jartzen ginenero hatzarekin Euskal Herria seinalatzen nion, egun batean itzuliko ginela zin eginez. ET bezalakoa nintzen, egun osoa “ene etxea” gogoan.



OFF THE RECORD

Medioetatik at

Geroz eta garbiago daukat: kazetariok ez gaude medioetan agertzen ez den jendea elkarriketatzeko formateatuta. Elkarriketata proposamenari "hau niretzako *marroi* bat da!" erantzuten digutenean hitzik gabe geratzen gara, galdera eta erantzunen arteko isiltasunak urduritzen gaitu, elkarriketatuen pudoreak gure lekuan jarri... Baina zer nahi duzue esatea, bizitzaren harribitxiak medioetatik kanpo daude.

Jendeak badaki iheslari bat zer den?

Jendeari iheslariaren bizitza ez zaio hain gogorra iruditzen. Ongi ikusten gaituzte, batzuk lanean, eta ez dute imajinatu ere egin zer diren distantzia, herrimina, familiarekin ez egotea, lagunak ez ikustea, nahi duzuna ezin besarkatu ahal izatea... Jendeak ez daki zer den errefuxiatua izatea, ez daki zer bizi izan dugun, zer falta zaigun, zer esperantza dugun. Errefuxiatua izatea errailetan bete ezin duzun hutsune etengabe bat sentitzea da. Badakizu zer bait falta zaizula, ezinegonez bizi zara, etengabe hutsune hori betetzeko ahalegin mingarrian.

Jendarte honetan zer da paperik gabeko pertsona bat?

Lana aurkitzeko, etxe bat alokatzeko, sendagilearengana jotzeko... eskatzen dizuten aurreneko gauza izena da. Hona itzuli naizetik harrituta nago bete behar den paper kopuruarekin, urrats txikienak eskatzen duen burokraziarekin. Edozertarako behar dituzu paperak. Edozertarako behar duzu kontu korronte bat, edozertarako erakutsi behar duzu zure txarteltxo. Erabat kontrolatuta zaude, ezin duzu pauso bakar bat eman paperik agertu gabe. Harrigarria zait. Soldata kobratzeko, gizarte laguntzak jasotzeko, osasun arazoak konpontzeko... Denerako kontu korronte bat ukaitera derrigortzen zaituzte. Kontu korronterik ez daukazula esaten baduzu, dena zailtzen da, ezin duzu gabe bizi. Hala, badakite zer jaten duzun, nola janitzen zaren, non ibili zaren... Dena. Lehen dirua patrikan bizi zen jendea. Pentsa, berriz Euskal Herrira itzuli arte ez dut sekula kreditu txartelik izan. Nahitaez erabiltzen ikasi behar izan dut. Ez zait ahaztuko lehen aldiz ezantza txartelarekin ordaintzen den postu automatikoan gizon bati nola funtzionatzen zuen gal-

detu behar izan genionekoa! "Nondik arraio atera dira hauek?!" pentsatuko zuen. Baina bai, guk ere birziklatze bat behar dugu, gu ez garela horrela bizi izan, eta gu egon garen tokietan ez direla horrela bizi.

Nola irudikatzen duzu Arbizu? Nola, itzuliko zaren eguna?

Uste dut ez nagoela hain galdua. Jendearekin egoteko parada izaten nuenean, etxex etxe pasatzen nuen herria batatz eta besteaz galdetza. Orain, hurbilago nagoenez, jendearekin harreman gehiago daukat, eta Udalaren webgunearen bidez herriko etxexi erreparatzen diet, ezagutzen ez ditudan auzo berri. Egiari zor, beste herri bat dirudi baina nik berdin-berdin ikusten dut, itzuliko naizen eguna geroz eta hurbilago ikusten dudana gisan. Badakit joango naizela, une hori biziko dudala. Ez dakit noiz izango den, ez dakit nola, baina gustatuko litzaidake inori ezer esan gabe isil-isilik joan, etxeko tinbrea jo, eta sorpresa ematea.

Hainbeste urteren ondoren, ikusten duzu zure burua Arbizun bizitzen?

Etxera itzuli nahi dugula diogunean ez gara baitezpada bertan bizitzen jartzeaz ari. Guk gure herriko edozein txokotan ibili eta bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Ez besterik. Nik, pertsonalki, espero dut berriz Arbizun bizi ahal izatea, bertako biztanle eta herria aurrera ateratzeko partaide bat gehiago izatea. Niretzat pertsonen merkantziek baino gehiago balio baitute. Ez dut nire burua diru asko duen jendearekin konparatzen, nahiago dut lagunez aberatsa izan eta harreman horiek elikatuz bizi. Egia da, herria dugu arnas, eta nik ez daukat herriarekiko esker ona besterik. ■



LEIRE CANCIO

Elhuyarreko zuzendari nagusia

«Gazteek ez dezatela pentsa AEBetan ikertzen dela nanoteknologia»

2012an egindako hausnarketaren ondoren, aro berria hasi du Elhuyar Fundazioak. Irudi korporatiboa aldatu du, baita barne antolaketa berritu ere. Fundazioak lehendakari eta zuzendari nagusi berriak ere baditu: Jose Mari Pitarke eta Leire Cancio, hurrenez hurren. Zuzendariarekin hitz egin dugu Elhuyar Fundazioaren aldaketez.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

Herritarrei galdetu al diezue Elhuyar ezagutzen al duten?

Ehun herritarri, euskaldunak eta erdaldunak, inkesta egin genien. Zientziaren arloan zein erakunde ezagutzen zuten galdetu genien, eta gauza bera hizkuntzaren arloan. Ondoren, erakundeen zerrenda ematen genien eta horrela ikusi genuen zenbatek ezagutzen zuen Elhuyar edo Elhuyarren zein produktu ezagutzen zituzten.

Esanguratsua izan zen ondokoa: zerrenda erakutsi gabe zientziaren alorreko erakundeen izenak emateko eskatu eta %80 ez zen gai izan izen bat bera ere emateko, izugarria. Hizkuntzaren arloan erdiak ez ziren gai izan erakunde baten izena emateko. Elhuyarri dagokionez, ikusi genuen hizkuntza kontuetan hiztegiak direla ezagunenak eta zientzia gaietan *Teknopolis* telebista saioa. Jendeak Elhuyarren proiektuak ezagutzen zituen, baina ez zituen Elhuyarrekin lotzen. Hor konturatu ginen Elhuyar indartu behar genuela, denok gara Elhuyar.

Zientziarekin ala hizkuntzarekin, zerekin lotzen zaituztete gehien?

Hiztegiekin. Hiztegiek publiko zabalagoa daukate eta guk herritar arruntei galdetu genien.



“Duela bi urte hausnarketa abiatu genuen, aspaldiko partez talde bezala, batera”.



“Ikusi genuen hizkuntza kontuetan hiztegiak direla ezagunenak eta zientzia gaietan Teknopolis telebista saioa. Jendeak Elhuyarren proiektuak ezagutzen zituen, baina ez zituen Elhuyarrekin lotzen”.

Beraz, talde bezala antolatu zarete eta zuen burua ezagutaraztea izan duzue helburu.

Bi gauzak uztartu ziren, Elhuyar markarena batetik, eta elkarrekin lan egin behar genuela bestetik, eta horri oso lotuta dago logo aldaketa. Aterkia irudikatzen du: denok gara Elhuyar, Elhuyar Aholkularitza, Elhuyar Zientzia...

Lau negozio unitate antolatu dituzue. Bata hizkuntza eta teknologia da, bestea berriz, aholkularitza.

Aholkularitza, enpresetan euskara planak lantzen hasi ginen, baina beste alor batzuetan ere hasi gara: berdintasuna eta parte-hartzea. Azken urteetan, nazioartratze prozesuan dauden enpresetan hizkuntza planak lantzen ari gara. Iaz proiektu pilotua egin genuen Tecnalian eta Elayn, eta orain merkatu-ratze fasean gaude.

Hizkuntza kudeaketaz ari zara.

Euskara planak kudeatzen ditugunean bi hizkuntzarekin ari gara, Hegoaldean euskara eta gaztelania-rekin. Badugu metodologia bat garatuta, diagnostikoa egiten dugu, gero ekintza plana... Nazioartratzen ari diren enpresek hizkuntza batekin baino gehiagorekin aritu behar dute.

Zientzia da zuen hirugarren negozio unitatea.

Zientzia gizarteratzeko gure proiektuak daude hor: *Teknopolis*, *Norteko Ferrokarrilla* eta *Elhuyar* aldizkaria.

Horiek bide tradizionalak dira, baina aspalditxotik gazteen zientziarekiko bokazioa pizteko proiektuak ditugu. Gazte denak ez dira ikertzaileak izango, baina zientziara eta teknologiarara hurbildu nahi ditugu.

Elhuyarrek zientzian daukan egitekoa, asko, bitartekari lana da. Hau da, gu ez gara unibertsitatea, ez gara ikerketa zentroa, baina garrantzia ematen diogu hemen egiten dena komunikatzeari. Adibidez, gazteen bokazioa pizteko, guretzako inportantea da haiek ondoko ikerketa zentrorara eramatea, ikertzaileari aur-

adibidez matematika aplikatua iker-tzeko zentroa, klimaren aldaketa ikertzekoa... Horiek denak duela hamar urtetik hona sortutakoak dira.

Gazteak ez dituzu zientziatik hain urrun sumatzen.

Oraindik landu egin behar da. Ikasketak erabaki behar dituztenean iker-tzaile izatearen bidea ez dago aurre-netarikoetan. Bokazio oso argiak dituztenak beti egongo dira, baina ez dago zabaldua. Eta kontua ez da hezkuntza sistema bakarrik, komu-nikabideetan ere landu behar da.

Ikertzaileak eta zientzialariak oso gutxi ateratzen dira.

Badira gauza bitxiak, ordea. Gazteen pertzepzio-arena egin genuenean, kon-turatu ginen gazteek ez dutela zientzialaria topikoz bete irudikatzen, batarekin eta Einstein bezala ilea kar-datuta. Gainera, haiek uste dute zientzialariek taldean

egiten dutela lan. Teknoskopia proiektuaren bidez gazteek ikerketa lanak aurkezten dituzte eta hiru talde irabazlek egonaldia egiten dute Tecnalian. Hori da gehien baloratzen dutena, ikertzailearekin egoteko aukera dute, eta gainera, askotan ikertzailea gaztea da.

Laugarren negozio unitatea, komuni-kazioa da.

Zientzia eta teknologiaz informatu nahi duten erakundeei eskaintzen dizkiegu zerbitzuak. Eremu horretan

**“CICNanoGUNE,
CICbiomaGUNE, matematika
aplikatua ikertzeko zentroa,
klimaren aldaketa ikertzekoa...
Horiek denak duela hamar
urtetik hona sortutakoak dira”**

pegia jartzea. Gazteek ez dezatela pentsa Amerikako Estatu Batuetan ikertzen dela nanoteknologia, baizik eta hemen, Donostian. Proiektu horietan ikerketa zentroak inplikatu daude, gure bidaide Tecnalia da.

Hemen badago zer erakutsi gazteei?

Eusko Jaurlaritzak sustatutako CICak [ikerketa zentro kooperatiboak] daude; CICNanoGUNE, CICbiomaGUNE... Sei-zazpi bat dira. BERCak [ikerketa zentro oinarri-zkoak eta bikaintasunezkoak] daude,

Barne antolaketa

Elhuyar diferente antolatu duzue.

Elhuyar hiru enpresak osatzen dute: Fundazioak, Elekak eta Aholkularitzak. Bakoitzak bere zuzendaritza eta barne zerbitzuak (ekonomia eta finantzak, mantentze informatikoa, komunikazio saila...) zituen. Barruan talde bezala antolatu gara orain. Adibidez, barne zerbitzuak talde osoarenak dira.

Hiru enpresek jarraitzen dute, ordea.

Egitura juridikoa mantentzen da. Baina orain zuzendaritza bakarra dago, lehen hiru ziren. Egin dugun hausnarketa prozesuan negozio unitateak definitu ditugu, enpresak alde batera utzita. Hizkuntza eta teknologia izeneko negozio unitatean adibidez, Elhuyar Fundazioko eta Elekako jendea dago. Enpresa desberdinetakoak izan arren, sail berean ari dira lanean elkarrekin. Etorkizunera begira egokiena den antolamendua egin dugu.

Zergatik egin duzue antolaketa aldaketa?

Hamar urtean Elhuyar Fundazioak, Aholkularitzak eta Elekak, bakoitzak bere bidea egin du.

Duela bi urte hausnarketa abiatu genuen, aspaldi-ko partez talde bezala, batera. Ikusten genuen eskaintzen genituen hainbat zerbitzu osagarriak zirela, elkarrekin gauza gehiago eskaintzeko moduan ginela. Aparteko enpresetan egonda, zailagoa gertatzen zitzaigun, eta arlo batzuetan batera egotea ezinbestekoa zen, edo hobe behintzat.

Beren kabuz ez dira lotura horiek gauzatu.

Espontaneoki horrelakoak gertatzea ez da hain erraza. Barruan ez genituen gune konpartituak, gauza batzuetan aritzen ginen elkarrekin lanean, baina ez zen naturala.

Antolaketa aldatzeko arrazoi gehiago ba al dira?

Hausnarketa prozesuarekin batera Elhuyar markaren azterketa egin genuen. Elhuyar zeinek ezagutzen zuen eta zeinek ez jakin nahi genuen. Jendearen eza- gutza txikia zen. Elhuyarren bereizgarri bat da gauza desberdin asko egitea. Egia da, gure bi zutabeak, hizkuntzarena eta zientziarena, ez daude naturalki lotuta. Beraz, pertzibitzeko ere, ez dira horren errazak.

daukagun esperientzia eskaintzen dugu. Beti uztartu izan ditugu gizar-teari begira egindako proiektuak eta zerbitzuak. Azkenean, zerbitzu salmentak sostengatzen du neurri batean Elhuyar proiektua. Aurrekontu osoaren %60 da zerbitzuena.

Europako diru-laguntza deialdiei esker hainbat proiektu garatu duzue.

Hor egotea inportantea da. Zientziaren dibulgazioa euskaraz eta hemen egiten dugula argi daukagu, baina askotan protagonismoa euskarak hartzen du eta ez da ikusten zientzia dibulgazioko proiektua dela. Europar proiektua da balora-

tzen dena, zer ekarpen egiten duzun, euskaraz, gaztelaniaz ala errusieraz izan. Gezurra dirudi, baina Europar aritzeak hemen balioa ematen digu.

“Europar proiektua da baloratzen dena, zer ekarpen egiten duzun, euskaraz, gaztelaniaz ala errusieraz izan”

40 urteko ibilbidea du Elhuyarrek. Hasierako helburua aldatu al da?

Elhuyar zientziari oso lotuta sortu

zen, baina gaur egungo Elhuyar eta ordukoa oso desberdinak dira. Taldeko hausnarketan xedea definitu dugu eta hiru zutabe zehaztu. Gure ardatza euskara da, euskara esparru berrietara zabaltzea. Bestalde, gure bereizgarri izaten segitzen dute zientziak eta teknologiak. Eta hirugarrenik, euskal gizar-tearentzako egiten dugu lan, zientziari lotutako balioak dituen gizar-tearentzako; jakin-mina duenarentzako, kritikoa denarentzako. ■



- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Suedia, mitoaren amaiera

XX. MENDEAN ongizate eredu gisa jarri zen Suedia. Herrialde aberatsa, demokratikoa eta justizia sozialaren aldeko gisa irudikatua, kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko bide gisa ikusi nahi zuen askok. Garai haietan, inor gutxik jartzen zuen dudan Suedian politika sozialek eta elkartasunak paper oso garrantzitsua jokatzeko zutela, nahiz eta ondoren jakin izan dugunez, neurri xenofobo eta klasista deitoragarriak praktikatu zituen. Adibidez, 1935etik 1996ra arte Suediak 230.000 pertsona (batez ere emakumeak) antzutu zituen, horietatik 63.000 “arraza nordikoaren araztasuna babesteko”.

Atzerrian asilo-eskubidearen erregulazio eskuzabalak mitoaren hazkundera lagundu zuen, baina bitartean jakin dugu suediar enpresa batzuek munduan zehar oinarritzeko giza eskubideak urratu eta langileak gordinki esplotatu zituztela aberasteko. Ildo horretan, azkeneko berrietako bat da IKEAk 1970.eko eta 1980.eko hamarkadetan Ekialdeko Alemaniako presoen lana erabili zuela bere produktuak egiteko. Praktika itsusietatik praktika

egoera ekonomiko larriari aurre egiteko. Hain zuzen ere, suediarrek etxean erabiltzen ari ziren errezetaren kontrakoa inposatzen zuten Baltikoko herrialdeetan.

Garbi dago globalizazioak suediar kultura politikoan aldaketa nabarmenak sortu dituela. Gizartean errotuta zegoen ekimen indibidualista elkartasunezko ikuspegi komunitarioarekin emeki-emeki desagertuz doa, bidea irekiz indibidualismo berekoienari eta elkarbizitza arazoei.

Azkeneko asteetan Stockholmeko etorkinen auzuneetan ikusi ditugun kale istiluak, aldeztu aurretik ikusiak genituen Frantzian eta Erresuma Batuan. Suedia ez da salbuespen bat. Hemen ere azkeneko urteetan neurri neoliberalak hartu dira eta ondorioz, pobreen eta aberatsen arteko distantziak hazi egin dira nabarmen. Desberdintasun hauek sendotu egin dira 1992an indarrean jarri zen “txeke eskolarra” bezalako politikekin, honen arabera gurasoek diru kopuru bat jasotzen dute seme-alaba bakoitzarengatik eskola publiko edo pribatu batean gastatzeko. Horrek eskola pribatuaren hazkundera ekarri du, eta beraz, eskola eredu klasistagoa garatzea. Periferietako gazteen artean, kasu gehienetan etorkin familiakoak, porrot eskolarra, langabezia-tasa altuak eta diskriminatuak egotearen sentimenduak daude zabalduak. Suedian jaioak diren arren, batzuk ez dira identifikatzen gizartearekin, baztertuak sentitzen direlako.

Testuinguru horretan, inkesta guztiek eskuin muturreko Suediako Demokratak (SD) alderdiari igoera garrantzitsua ematen diote. SD lehen aldiz 2010ean sartu zen Parlamentuan eta orain hauteskundeak egingo balira hirugarren indarra izango litzateke. Ez da harrizkoa, ongizate estatua murrizten ari den unean, ohikoa bilakatu da diskurtso xenofoboak erabiltzea politika neoliberalen kaltetuak diren arteko liskarrak sortzeko eta eztabaida publikoa sakoneko arazoaren sustraiaetik aldentzeko: aberastasunaren banaketa. ■



Inkesta guztiek eskuin muturreko Suediako Demokratak (SD) alderdiari igoera garrantzitsua ematen diote. SD lehen aldiz 2010ean sartu zen Parlamentuan eta orain hauteskundeak egingo balira hirugarren indarra izango litzateke

kolonialistetarako saltoa ez da hain handia. Horrela demostratzen dute azkeneko urteetan suediar enpresa finantzarioek egin dutena Herrialde Baltikoetan: banku sistema ia osoki kontrolatzen dute eta honetatik gobernuai zein politika ekonomiko egin behar duten esaten diete. Krisi ekonomikoa hasi zenean, kapital finantzario suediarren presioetara makurtuz, Letoniako Gobernuak baztertu behar izan zuen bere monetaren debaluazioa



Clara Wolfram

KAZETARIA ♦



DANI BLANCO

Feminismoa modan

HORIXE esan zidan lagunak: “Feminismoa modan dago”. Nire begirada eszeptikoa ikusita, argudioak botatzen hasi zen. “Internetera sartu eta begira zenbat blog feminista dauden. Egunkariak irakurri eta ia egunero topatuko duzu ikuspuntu feministarekin egindako ikerketa berri bat. Saltseatu emakumei egindako elkarrizketetan eta berehala konturatuko zara, gehienek helburu feministak dituzte, eta boterean daude asko! Azken mende erdian feminismoak ereindako haziak loratzen eta zabaltzen ari dira. Hirigintza, zinea, ekologia, ekonomia, ekografia... edozein errealitate berraztertzen ari dira emakumeen ikuspuntutik”.

“Baliteke”, erantzun nion nik, kontrako argudioen munizioa prestatzen nuen bitartean. “Modan egon daiteke, baina modara ez da heldu feminismoa. Bestela, nola da posible arropa ekoizten den herrialdeetan emakumeak eta haurrak esklabutza baldintzetan lanean aritzea? Zenbat emakume eta haur hil dira Bangladesheko fabrikaren istripuan? Benetan axola al zaigu non eta nola ekoizten den arropa hori? Noiztik dugu urtero gure arropak aldatzeko beharra? Zergatik ari gara etengabe dieta egiten arropa horietan sartu ahal izateko? Eta zergatik eman ditzakegu orduak erakusleioak eta modako aldizkariak begiratzen? Ez al dugu

beste ezer hoberik egiteko medikuaren itzarongelan edo harategiko ilaran?”.

Adierazpen horietan nenbilela, nire oinen ahotsak buru barneko gogoetan agertu ziren. “Eta zu, buru jakintsu hori, zertarako ari zara juaneteak elikatzen takoizko plataforma gogor hauetan? Zergatik ez diguzu lurra lasaitasunez zapaltzen uzten, gizon guztiek egiten duten modura? Ez al ditugu guk gizonezkoen oinen eskubide berberak? Akuilumakuiluen gainean gabiltza. Gu, oinak, ez gaude konforme! Oinutsik nahi dugu! Juanete madarikatu hauez gain, bizkarra ere kexuka hasi zaigu, takoi horiek mina eragiten diotelako...”. “Zapata horiekin oso sexy nago”, erantzun nien nik, mantra kexati hori moztu nahian. “Gainera orain ohitu naiz altuagoa izaten, eta takoiak kentzen ditudanean txikia, potoloa eta arrunta sentitzen naiz”.

Oin-buru arteko elkarrizketa hau ez zen, noski, nire ahotik atera. Lagunak begiratu ninduen, nire bat-bateko isiltasunaren esanahia harrapatu nahian. Adio esan nion, presaka nenbilela eta, oraindik harategitik pasatu behar nuela medikuarenera joan baino lehen. “Medikura?” galdetu zidan. “Bai, juanete hauekin ez dago lasai bizitzerik eta”.

Modan egon daiteke, baina modara ez da heldu feminismoa. Bestela, nola da posible arropa ekoizten den herrialdeetan emakumeak eta haurrak esklabutza baldintzetan lanean aritzea?



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Zentzumena

HORI beharko luke abezedarioa jarraituz, joan den irailetik idazten ari naizen glosarioaren azken hitza. Aurreko batean Amets Arzallusek zaborren gaiaren harira intimitatea zer den galdetu zuen baina. Amua guztiz irentsi, bere galdera jarraitu eta salto egitera noa. Denok dakigu ikusmena, entzumena, dastamena, ukimena eta usaimena direla zentzumen nagusiak. *Sinestesiaren* eremuetan murgilduz gero konbinaketak askotarikoak dira: dastamen ukigarria, usaimen entzungarria, ikusmen usaindua eta abar. Hegoaldean, Oteizaren zero metafisikotik zero zaborrera igaro garela zioen elkarrizketa batean Joseba

Zulaikak, zaborraren kudeaketaren soberania dela lortutakoa. Eta haren ikusgarritasuna, espektakularizazioa, erantsiko nuke. Intimitatea, ordea, beste zerbait da: pertsonekin intimitatu, naturarekin, gauzekin. Sentsualitatea eta entzumena behar dira *intimitatzeko*, gorputza. Nire gorputzak ezin du zurrun dagoen beste gorputz batekin intimitatu, are gutxiago buru eta pentsamendu zurrun batekin. Zaborrekin ere *zentzumena* beharko genuke. Ez bakarrik gauzei zentzua emateko edo zentzudunak izateko. Gauzak, natura eta beste entzuteko, halabeharrez.



DANI BLANCO



Gorka Moreno Márquez

♦ EHUko IRAKASLEA

Datorren ongizate estatua: zubirik gabeko igaroaldia

ONGIZATE ESTATU tradizionalaren gizarte-hitzarmenaren arazo estrukturalak pobrezia eta gizarte-bazterketa dira. Hartara, gizarte-politikak gizartearen elkartasunaren adierazle dira eta hiritar bakoitzaren eskubide. Azken urte hauetan ikuspegi hau zalantzan jartzen ari da “aktibazio” ereduaren bidez. Aktibazioak prestazio ekonomikoa edota gizarte laguntza jasotzen duten pertsonen lan merkaturatzea ahalik eta azkarren sustatzea planteatzen du. Hori lortzeko, besteak beste, zigorrak, behartzeko neurriak edota prestazio horien diru-kopuruen murrizketak aplikatu dira.

Aldaketa horrek zalantzan jartzen du orain arte nagusi izan den eredu. Izan ere, pobrezia-erikiko gizarteak duen arduraren eta hiritarren gizarte-eskubideen aurrean, orain nagusitzen ari den gerturapenak norbanakoaren ardura azpimarratzen du, eta hortaz, norbera da bere egoeraren erantzule. Era berean eskubideen jabe da, baina baita betebeharre-na ere. Mutazio horrek isla nabarmena du hizkeran bertan. Horrela, gero eta gutxiago erabiltzen da “enplegu falta” –egiturazko faktorea– eta gero eta gehiago “enplegugarritasun falta” –norbanakoaren kalitatea–. Gero eta gutxiago ziurgabetasunaren aurrean babes eskaintzea –ardura kolektiboa– eta gero eta gehiago norberak aldaketarako dituen ahalmenen laudorioa –norberaren izaera–.

Hizkeraz gain, eredu aldaketak hainbat ondorio sorrarazi ditu errealitatean. Lehen, gure gizarteetan gehiengo zabala integratuta bazegoen ere, gero eta gehiago

dira integrazio horretaz disfrutatzeko gai ez direnak eta gizarte-zaurgarritasun egoeran kokatzen direnak, gizarte-dualizazioa gero eta nabariagoa izanik.

Orain arte gizarte-politikek zubi gisa jokatu dute, horren bidez, ertz okerrean zeudenek bestaldera igarotzeko aukera izaten zuten. Momentu hauetan zubi leherrarazi dute, eta lehenengo aldiz azken 200 urteetan, belaunaldi bat aurrekoa baino okerrago bizi daiteke etorkizunean, 40 urte azpitik daudenak –gaudenok– alegia. Eta okerre-na,

*Dohain indibidualetan
oinarritutako soluzioek
ez dute inongo
aukerarik gure gizarte-
ongizatea eta kohesioa
bermatzeko*

aktibazioak testuinguru honetan planteatzen duen salbaziorako bidea hau izaki: bilatu ezazu txalupa bat, arraun egin ezazu ahal bezainbeste eta horrela lortuko duzu beste ertzera ailegatzea.

Eredu honek ahaztu egiten du jende askok txalupa erosteko aukerarik edota arraunean airtzeko indarririk ez duela. Beste era batera esanda, norberarengan eta dohain indibidualetan oinarritutako soluzioek ez dute inongo aukerarik gure gizarte-ongizatea eta kohesioa bermatzeko. Dena den, hauxe da etorkizuna... eta oraina. ■



**BERTSO
BERRIAK**

**Uxue Alberdi
Estibaritz**

♦

Doinua: Habanera.

Abortu eskubideari



Urte luzetan egina
klandestinoki, gordeka...
Prezioa: arriskua
eta milaka pezeta.
Feministen aldarriak
zartatu zuen pareta,
umetoki bakartuak
elkartu ginen taldeka:
"nik ere abortatu dut!"
garrasi bat zen, kolpeka.
Isil dezagun sotanen
ta gorbaten berriketa
bizia aitzaki jarritz
legeen baitan gordeta
gorputzaren jabegoa
negoziatzen dute-ta.

Zein da gai honen mamia?
Zein asuntorearen funtsa?
Zer dela eta PP-ren
seta, ardura, zaputza?
Betikotu nahi dutela
emearen zapalkuntza,
iraunaraziz objektu,
oztopatuz jabekuntza.
Uteroa geurea da,
izan betea zein hutsa.
Geure zulo, geure odol:
ez inoren bozka-kutxa.
Arma gaitezten: bularrez,
aluz, hortzez egin bultzat!
Gudu-zelai bilakatu
digutelako gorputza.

Ez apaizak, ez obstetrak,
ez maisuak, ez senarrak,
ez juezak, ez nobioak.
ez mediku egoiliarak,
ez aitak, ez poliziak,
ez jakintsuen biltzarrak,
ez politiko progreak,
ez sektore eskuindarrak,
ez familia plangintzek,
ez etsaiak, ez gutarrak
ez Freudek, ez Jaungoikoak
ez katedradun azkarrak,
ez ohiturak, ez legeak,
ez potroek, ez bizarrak:
geu gara zer behar dugun
ondo dakigun bakarrak. ■

Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Dabrakotea enbargoyokua bezala

EZAGUN DA, komunikazioa boladan dago: komunikazio egokia, arrakasta ororen eragile; komunikazio gabezia, porrot ororen kausa. Zenbat aldiz ez genien entzungo molde guztietako gobernuen neurri egokiak hartu dituztela baina komunikazioan egin dutela huts, eta horregatik ez dituztela herritarrek erabakiok ulertu. Neurri egokiak dira, diote, kontua da agian ez dugula transmititzen jakin. Herritarrek tontotzat hartu ohi dira, ez gutxitan gainera. Sentipen hori izan nuen berriki, bidenabar, etxean Gipuzkoako Diputazioak banatutako *Gipuzkoa Berria* aldizkaria jaso nuenean.

Nola uka komunikazioaren garrantzia saltzea –kea edo ikatza, hori besterik da– hain garrantzitsua den gizarte honetan? Hor ikusten dut ingeniartzat ikasi duen lagun ugari komertzial bilakatuta, kazetaritza ikasi duten makina bat propaganda –gordeka edo agerian– zuzkitzaile. Konpetentziaren oihan honetan bizirauteko, bada, komunikazioan trebatzea ezinbestekoa omen.

Arazoa (arazoetako bat), ordea, ukaezinezko garrantzi horretaz landa guztia komunikaziora murrizteko joera da, ares-tian esan bezala, arazo oro komunikazioaren prisma-tik begiratzekoa. Murrizketak horrek, gainera, oinarri teoriko aski pattalak erabili ohi ditu. Eta benetan etsigarria da historian zehar denbora luzez eta konplexutasun handiz landu diren gaiak halako modu banalean ikustea trataturik (izan ere, komunikatzaile ona izateko ausarta izan behar, azal zein kopeta gogorrekoa).

Komunikazioaren guruek diote, esaterako, ahozko hizkuntza eta idatzizkoaren artean *continuum* bat dagoela, hots, idatzizkoa ahozkoaren isla moduko bat litzatekeela. Ideia hori, baiki, pentsamendua-ren historian nagusia izan da, baina ongi kritikatu eta gurzuratua halaber XX. men-

dearen erditik aurrera (gutxienez). Ez dut erreferentziarik emango, estandarrean idaztea pose intelektualtzat jotzen den herri batean bizi baikara, baina ez dut imajinatu ere egin nahi zer gertatuko litzatekeen norbait zutabe batean filosofo baten izena idaztera ausartuko balitz; zer esanik ez, r guturalduna bada.

Baina kontu horiek guztiak gora-behera, iruditzen zait idatzizko sormenera eman den edonor –hitz-joko eta pareatuetatik landa, esan nahi baita– ohartu dela jauzi bat dagoela ahozkoaren eta idatzizkoaren artean. Idatzizkoa ez dela, alegia, ahozkoaren orrazte-fintze –eta azken batean, menpeko– moduko bat soilik. Idatzizko sormena, komunikazio bezain inkomunikazio dela. Clov-ek esan bezala: *Signifier? Nous Signifier? (rire bref)*. Idatzizkoaren inguruan hausnartu duen edonor jabetu da hor badela gaindiezinezko hutsune bat, estali ezinezko amildegi bat, eta idazleak nola-hala amildegiaren ertzean egin behar

duela aurrera. Idazten duzunaren eta jasotzen denaren arteko distantzia hori komunikazioaren ikuspegitik arazoa da, baina sormenaren ikuspuntutik aliatu handia. Zenbat jirabira eman ditzakeen testu batek urterik urte, menderik mende. Ahozkoan, ordea, berehalakoa behar du izan uler-menak esan nahi dena taxuz transmitituko bada. Maiz esan izan didate nire idazteko moduak ez duela zerikusirik nire izateko moduarekin. Ez dakit lehenengo edo bigarrenarekiko loreztat (edo keriatzat) hartu, baina pozten naiz bien arteko ezberdintasuna antzematen bada. Ordenagailuaren aurrean, nahi beste denborarekin, ogia eroatera joaten naize-nean edo igo-gailuko elkarrizketetan

bezalakoa izango banintz, hori bai litzatekeela patetikoa. ■



Antton Olariaga



«Federico Fellinik bere *Amacord* zoragarrian lortzen duenaren moduko zerbait egin nahi nuen»

“Guardia zibilen tiroek zauriturik” irakurri dugu liburuaren azalean, hiru mutil gazteren eta *Alkasoroko benta* izenburuaren eta egilearen izenaren azpian. Bizitza eta heriotza Bortzirietan duela berrogei urte, Beratik Lesakara, Etxalar, Arantza eta Igantzin. Hangoxe giza geografia baliatu du Mikel Tabernak (Alkaiaga, Lesaka, 1957) literatura egiteko, euskarari arnasa berria emateko.



| MIEL A. ELUSTONDO |
Argazkiak: Zaldi Ero

Alkasoroko benta...

Jende gehienek jakinen dute zertsu kontatzen den liburuan. Zaila egiten zait aitzinetik erranak baino gehiago botatzea. 60ko eta 70eko hamarkadako kontuak aipatzen dira lan honetan.

Kontu batzuk.

Istorio mordoxka bat, ardatz baten inguruan bilduak. Ardatz hori, hain xuxen, pertsonaia bat da, mutil bat. bizitzan aitzina egiten du, eta bere ahotik kontatzen dizkigu ikusten dituenak, inguruan gertatzen direnak, eta berari gertatzen zaizkionak ere bai. Garai hartako zenbait informazio ere ematen zaigu, gauza jakinak, irakurleak bere burua koka dezan, jakin dezan, urte haietako berri. Hori xe da *Alkasoroko benta*.

Hori, geografia jakin baten barnean.

Bortzerrietan, edo Seierrietan, Bidasoaldean, Euskal Herriko edozein herri ttikitari gerta zitekeena. Pertsonaia nagusia, behinik behin, horkoa da, nahiz eta bere hanat-honatak badituen, eta mugitzen den. Kontakizunen artean —dena fikzio izanagatik ere—, bi gertaera latz, mingarri, nobelan mugarri ditugunak. Bi gertaerak, hala ere, benetan gertatu ziren, baina nik haien bertsioa egin dut liburu honetan, kontakizunak eskatzen zuen edo niri iruditu zaidan maneran narrazioan txertatuak.

Horixe *Alkasoro*... zure mintzoan. Dena dela, irakurtzen hasi eta irakurlea lehenik kolpatzen duena: hizkera. Euskara estandar zelaitik urrun.

Zer kontatua da bat, nola kontatua bertzea, zeren bidez da hirugarrena. Hizkera, baliabide. Nik zer erran behar dut! Nik idatzi egiten dut, ez bertzerik, eta inori erakutsi aitzinetik



neuk irakurtzen dut testua behin eta berriz, poliki eta mantso, eta beharria paratu ere bai, testuak zer musika duen antzemateko. Ongi dela iruditzen zaidanean, istorioa badoala, kontatu nahi dudana ongi kontatua dagoela, eta, bertzetik, kontatzeko manera ere landu dudala, ongi naiz.

Hizkera, idazteko manera.

Erreparatzen diot, dudarik gabe, hautatu egingen dut zein baliabide, zein hitz, zein erranera erabili...

Bazterreko hitzak, besteak beste.

Bazterrekoak edo, behinik behin, orain arte letra idatzien plazara agertzeko fortuna edo aukera izan ez duten hitz batzuk, erranerak, niri gustatuko litzaidakeen moduan. Gustura gelditzen naizenean amaitzen da nire lana. Nik uste idazle bakoitzak bere ahotsa bilatzen duela, baina, horretaz aparte, kasu honetan narratzaile izateko aukeratu dudan pertsonaiak bere solas moldea izatea eskatzen zidan. Kontalari horrek ez ezik, gainerako pertsonaiek ere bai, eta denentzat egokia izan zitekeena egiten saiatu naiz. Bertzela, gatzik duen ez duen, idazleak dituen erreferentziak baliatzen ditu, eta irakurleari dagokionean ere berdin, zein dituen erreferentziak, horren arabera etorriko da norberaren juzkua.

“Idazteko tenorean ere zorrotz jokatzeko dut nire buruarekin, hagitz mantso idazten dut”.

Idazlearen ahotsa aipatu duzu arestian. Zure *Txokolatezko dinamita* (Susa, 2001) hartako ahotsa aldatu da?

Handik honat gehiago dakit. Euskara erdi galduta ere eduki nuen gazte denboran, eta, gerora, ahantzia berreskuratu, gogora ekarri nuen berriz. Beti ari bainaiz ikasten. Urte dexente pasatu dira, eta ez dakit oraingo liburuan gehiago azpimarratu dudana tokiko hizkera. Nolanahi ere emaitzarekin pozik

Freskura

“Oraindik ez du argitu, baina buruz daki non finkatu behar duen hanka, eta kontent heldu da bidexkan barna, saltoka. Esku baten zakoteari kontzen dio, barrenean ekarki duena ez galtzeko. Bakarrik da, gaueko lana egin ondotik lagun bakoitzak bere aldera jo duelako. Alemanak mugatik desagertu zirenetik aisaxeago dabilta. Bidean pixka bat entretenitu da. Hiru amurrairekin tiki ebatsi dizkio, bat-banaka, Larun aldetik heldu den erreka jostariari...”. Horrela idazten du Mikel Tabernak, euskara estandar fosilizatuari freskototasuna, idatzia-ri ahozkoaren bizitasuna dakarzkioa hastetik buru. *Alkasoro*... narrazio bilduma izan, nobela izan —eta nori ardura dio kontuak—, irakurtzen ahal dugu atalka, irakurtzen ahal dugu osorik. Gozatu nahi den irakurleak badu non goza, eta gehi-ago goza nahi denak, badu *Txokolatezko dinamita* hura arrairakurtzeko argudio. “Hagitz mantso” idazten duela dio Tabernak. Onik idaztekoan, ezin bestela. *Alkasoro*... da froga.

naiz, testuak nonahiko irakurlearentzat balio duela ikusirik. Hango irakurlea ere, Bortzerriak aldekoa, gogoan izan dut batzuetan. Nahi nuke bertako aunitz harroago egotea daukatenaz, nik haiengandik ikasi baitut! Hala ere, ikusten dut zenbaitek ez duela behar adina estimatzen zer altxor duten. Haiek burutan idatzi dut tarteka. Haiei ikasitako eta ebatsitako hitz eta erranerak baitira, bakarren bati erranen nioke: “Paperean ikusirik eder iruditzen zaik? Hirea duk! Hiregandik ikasi diat!”.

Itzultzaile izateak badu ikustekorik euskarari beste tornu bat eman nahiarekin?

Itzultzailea hizkuntzarekin ari da egunero lanean. Xehetasunei aunitz begiratzen diegu, behartuak gaude haiei erreparatzera, dena ongi jostera. Horregatik, idazteko tenorean ere zorrotz jokatzeko nire buruarekin, hagitz mantso idazten dut. Kostatzen zait gustura gelditzea idatzi dudanarekin eta, neurri batean bada ere, lanbideak izanen du ikustekoa horretan.

Denbora, leku, zeru eta lurak –Txirritaren legean–, 60ko eta 70eko hamarkada, Seierrieta, Martin Irazoki gaztea... Alkasoro duzu zure Macondo?

Horrelako zerbait erraten ahal da, nahi baduzu. Izanez ere, lehenagotik dator lurralde honek pertsonaia batzuen antzeztoki izateko balio zidala ohartzea, eta hautua kontzientea izan da liburu honetan. Herriaren sorrera, ordea, kasualitatea izan zen. Lurralde horretan kokatutako ipuin bat fikzionatu nuen behin, [Tene Mujika] lehiaketara aurkeztu –*Bota xoxa* zuen izena, gero *Txokolatezko dinamitan* agertu baitzen–, eta toki ezaguna jarri beharrean, Alkasoro jarri nuen. *Txokolatezko...* hartan konturatu nintzen irakurleari lagungarri zitzaiola, nontsu zebilen jakiten ahal zuela, eta niri ere Alkasorok kontatu nahi nituenak libreki kontatzeko bidea egiten zidala. Horrela etorri da *Alkasoro* nire kasuan.

Ipuin hartan jotako kolpeak irauten du zure lanetan, dela *Txokolatezko dinamita* hartan, dela *Alkasoroko benta* honetan.

Hainbertze ere ez dut idatzi eta, beharbada, horregatik irauten du orduko zera hark. Geografia berberak, alegia. Gauza jakin batzuek pizten didate idazteko gogo, baditut hor “hazi” batzuk –anekdota bat, pasarte, pertsonaia...–, eta franko paraje horietan ditut ezagutuak, bizituak edo ikasiak. Abiapuntua izaten dut hori, hortik hasten naiz istorioa garatzen. Horregatik segitu dut liburu honetan ere lurralde hartan.

Hizkera gozagarri

“Nork bere aukera egiten du, eta garrantzi handiagoa edo tikiagoa ematen dio bere euskarari. Alkasoro-n, pertsonaiaren eta gertaeren nongotasunagatik, badago tokiko hizkera bat. Banuen kezka horrek onarpen zabala izanen ote zuen, inorentzat traba gertatuko ote zen. Banuen duda, edo zalantza puntu bat. Baina ohartu naiz ez dela eragozpenik izan. Alderantziz, iritziak etorri zaizkit, hainbat irakurlerenak, erranez hagitz gustura irakurri dutela liburua, hizkera ez dutela traba izan, gustura eta aisa irakurri dutela, gozatu egin dutela horretan”.

Istorioetan, bizitza da ageri. Bizitzarekin batera, Alkasoroko jendea gogor astintzen duen heriotza bortitza.

Baliteke heriotzak gehiegi iluntzea nobelaren tonua, ez dakit. Heriotza, nahi ez badugu ere, bizitzaren parte da. Presentzia handi xamarra du kontakizun honetan. Dena dela, bietarako iritziak heldu zaizkit; batzuei ez zaie iruditu tristeegia denik eta bertze batzuek, berriz, erraten didate: “Mikel, noiz idatzi behar duk zerbait alaia-goa?”. Iritziak dira, ez bertzerik. Ni ohar-tzen nintzen kontatzen ditudan gertaera bortitz horiek pisu handia izaten ahal zutela narrazioan, baina ez nuen nahi, espres, kasu horien nobela bakarrik izatea. Hori baino hagitz gehiago izatea nahi nuen, eta horretan saiatu naiz, heriotza horien historia baino gehiago izan zedin eleberria. Istorio nagusiarekin batera, bazter istorioak ere ekarri ditut –nagusitik ateratzen diren adarrak balira bezala–; eta horiek ere niretzat hagitz inportanteak dira.

Zenbat du Martin Irazokik Mikel Tabernatik?

Martin Irazoki nire sorkaria da, fikzioa, baina betikoa: zer idatzi? Dakiguna. Nola ikasten den? Bizituta, adituta, ebatsita... Hortik abiatu naiz. Martin Irazokik nire urteak bizitu ditu, baina bere maneran. Nik ibilitako bideak ibili ditu, bai, baina hortik goiti fikzioa sortzen da, istorio eder gustagarria idatzi nahi dugulako, irakurleari balioko diotenak kontatu nahi ditugulako. Aldi berean, gai zenbait plazara atera nahi izaten ditugu, norberaren bizitzan gertatzen ez diren asko eta asko. Bat edo bertze norberari gertatuak, baina horiek pasarte tikiak dira beti.

70eko hamarkadan, Francoren heriotza 1975ean, diktadorearen osteko garaia gero, aldaketa politikoa... Eltzetzuaren begiradapean beti. Hortxe beti guardia inzibilak.

Guri tokatzen zaigun bizialdian, gehiegizkoa ere bada haien presentzia. Hor egon dira eta daude beti. Eltzetzuaren gaineko hainbertze kontu aditu diegu gure zaharrei, eta guri ere hala tokatu zaigu. Bagenekien hor zeudela, ez ziren ustekabeak agertzen, edo ez ziguten ustekaberik ematen, bagenekielako noiznahi eta nonahi ager zitezkeela. Batzuetan libratzen ginen –gehienetan, nahi baduzu–, baina bertze batzuetan –zoritxarrez–, ondorio latzak uzten zituzten. Eltzetzuak ez dira, segur aski, Bortzerrietako –edo Seierrietako– ezaugarria, baina, han, muga bertan dagoela, arrunt markatua da haien presentzia.

Hor dago Endarlatsa...

Zenbat istorio Endarlatsan!



Hortxe Mikel Zabaltzaren gorpua ageri...

Bai. Zenbat bizitu dugun, zenbat etorri zai-
gun, edo zenbatekin egin dugun topo. Zenbat
heriotza izan dugun hain hurbill

Non da orduko Seierrieta, mundu hura?

Zerbait gelditzen da, baina aunitz aldatu da.
Geratuko dira mundu horren zati batzuk,
horren puska batzuk, baina fuerte aldatu da.
Mundua ziztu bizian aldatzen doa, baina, hala
ere, gauza batzuek guk uste baino gehiago
irauten dute. Marra lodienak, nik
uste, galduxeak daude. Erraten dute
telebista eta eskola izan direla, ber-
tzeak bertze, aldaketa ekarri dutenak.
Gure pentsatzeko, bizitzeko eta
harremanetarako manierak, bi horiek
aldatu dute, dexente. Iruditzen zait.

Orduan Alkasoron zena, hirian da
egun, eta hiritik ari da mundu joan
hura kontatzen.

Nire kasuan horrela da. Buruan da.
Hautzaroa, erraten dute, eta gaztaroa... bizi-
tutako tokiak... Horrek arrasto sakona uzten
duela gure baitan. Distantziak ere ez dira izu-
garriak, eta hara begira bizi dira ni bezalako
aunitz. Harrigarria da Iruñerria nola husten
den asteburuetan, zenbat jende joaten den
bueltan jaioterrira. Iruñean egonagatik, ez
dakit arraso laketu dugun ziutatean. Uste dut
oraindik ezetz.

Bortzirietan zen William A. Douglass antropo-
logoa 60ko hamarkadaren hasieran. Etxala-

**“Gertaera bortitz
batzuek pisu handia
izaten ahal zuten
narrazioan, baina ez
nuen nahi, espres, kasu
horien nobela bakarrik
izatea”**

rrren. Exodoa zen gizarte
haren ezaugarri.

Gerra ondoren, herria uzten
zuenak —herria gogoan iza-
nagatik ere— aukera gutiago
zuen automobila har eta
bueltan joateko. Jendeak ez
zuen automobilik! Hirira
etortzen zena ia-ia kondena-
tua zen ziutatean bizitzera,
nahiz burua eduki herrian.

Alkasoro... irakurtzen hasi
eta narrazio bilduma zelakoan
nintzen. Ondoren jakin dut
nobela zela eskuartean
nuena.

Ez diot horri garrantzirik
ematen. Ez naiz hori eztabai-
datzera sartuko. Kontakizun
guztiak zerbaiten parte zirela
banekien, hala izatea erabaki
nuen. Beharbada, nire lan
egiteko maneragatik, zatika
idatzi dut testua, eta gero

osoa egituratzen joan naiz. Konparazio batera,
badu zinema egiteko manerarekin antza:
sekuentzia bat hemen, bertze bat han... eta
josten joan. Nik uste badela loturarik osotasu-
nean, baina adituek erran beharko dute nobela
den, ez den. Horri ez diot garrantzirik ematen.


**Galdera bat hondarreko, enkas: Zein da kues-
tinoa, egoeraren egoera, liburu honen xedea?**

Lehenbiziko galderan saiatu naiz erantzuten!
Kuestinoa zen jendeak gustura irakurriko

lukeen zerbait idaztea. Gustuko zer-
bait. Horretarako zer? Nik mundu
hura ekarri nahi nuen liburu honetara,
pertsonea haiek eta haien azpian zeu-
den gaiak. Horiek interesatzen zitzaiz-
kidan, liburua patxadan irakurriko
zuenak mundu hartan zegoenaz pen-
tsa zezan, eta goza zedila, kontatzeko
manerarekin, narrazioarekin, hizkera-
rekin... Etsenplu eta erreferentzia
gisara, nahiz bertze batzuk ere aipa-
tzen ahalko nituzkeen, erranen dizut

Federico Fellinik bere *Amarcord* zoragarrian
lortzen duenaren moduko zerbait egiten saiatu
nahi nuela: herri koxkor bat irudikatu, jende-
komunitate baten berri eman elkarri loturiko
istorioak erakutsiz, kameraren fokua orain
pertsonea bat eta gero bertze bat harrapatzen
duela; eta pertsonaien nahiz haien goitibehei-
tien bidez kezka batzuk plazaratu,
inportatzen zaizkidanak. Horien
arte, gure historia hurbileko
zenbait gertakizun, erdi ahanziak
edo isilaraziak zeudenak. ■





Helduen literatura

Teleamarauna
Mayi Pelot
Maiatz, 1987

Bakan ale bitxia

UNIBERTSALKI izan duen bigarren mailako estatusari gehitzen badiogu hizkuntza, begi-kolpe batean ikusiko dugu ez dela bereziki oparoa euskarazko zientzia fikzioa. Idatzi izan da, noski, Iban Zalduak inoiz aitzindari deitu dituen haiengandik hasita —eta bereziki nabarmentzen zuen Xabier Kintana, *Izar berria* nobela (1969) eta *Ukronia* (1972) ipuinarekin—. Baina ez generoa BBVA ligara igotzeko adina, edo adinakoa. Hala ere, eman izan ditu bakan ale bitxiak. Zalduak espezialisten taldean kokatutako Mayi Pelotek, esaterako. Kasu kurioa da Pelot: batetik, Itxaro Bordaz landa, Ipar Euskal Herriko emazte idazle gutxietarikoa baita —gehienak ere *Maiatz*en bueltakoak—. Eta, bestetik, idatzitakoa, eskusiboki ia, izan delako zientzia fikzioa. *Maiatz* aldizkariaren 5. zenbakian, 84ko apirilean, narrazio luze bat —*Telelabirintoa*—, eta ipuin bilduma bat urte bete berandua go, *Biharko oroitzapenak*. Bikaina lehena; gorabeheratsuagoa bigarrena, Mikel Antzaren hitzetan.

Eleberri laburra da hirugarren emaitza, *Teleamarauna* —eta ez du zerikusirik Antzak laudatuarekin—. Narrazioaren haria da fin-fina: hainbat lagun, onak, elkartzen dira telepatiaren bitartez galaxiako jendea kontrolatu nahi duen bat, gaiztoa, menperatzeko. Ados. Horraino argumentua. Nabarmengarriena, aldiz, iruditzen zait Pelotek sortzen duen mundua: traturra mañetikoaren lantzen dute lurra; airetxalu-

parekin lekutzen dira batetik bestera; mikroordena-gailu EN 24 belarridunak erabiltzen dituzte. Jantzi ahal dute jeroihalezko galtzatorra, pontxo luze bat, bestela, gorrixka berdea, uso paparo margokoa, oinetan espartin G arabera. Bizi ahal dira kontainer-jauregitxo kuttun zainduetan, iglubok modukoetan, barrua hyperfeldrozkoa, ohean thermotxarpaila. Laseraiztoak erabiltzen dituzte sugorrien hiltzeko; droga gisa marruskatzen dute Deltako sashikat ostoa; esqware bera, uronarra da, Antares aldekoa. Dena nahi bada oso xaloa, nahi bada oso lañoa dena, baina, eta akaso urteek ematen duten distantzia ironikoarekin, irribarre batez irakurtzen dena.

Eta ez zuen askoz gehiago argitaratu Pelotek. Iru-dipena daukat gerora ere ez dela bereziki hobetu euskarazko zientzia fikzioaren egoera. Aukera bat da, hartara, Iban Zalduak hasieretan gaztelaniaz idatzi zuen zientzia fikzioa euskarara itzultzea itxarotea —eta, badakizue, gero frantsesera, ingelesera, hungarierara, eslovenierara... azkenik buelta gaztelaniara itzultzeko—. Baina akaso emango digu satisfazio berehalakoagoa euskarazko zientzia fikzio ez bereziki oparo horretan aztarrika aritzeak, bakan ale bitxi horietako batekin topo egiteko. ■

Aritz Galarra



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00



J.A. ARETA GOÑI JUXE

Lourdes Olangua *Louk* azkenekoz abestu zuenekoa. Ok Korral taldeko kide zen Fermin Iraolari eskainitako omenaldia, Kaxerna Gaztetxean, Beran, 2011ko azaroaren 26an.

Gora Lou eta Loutarrak

SEI MUSIKA TALDEK, lagun ugarik eta musika zaleek Zarauzko Putzuzulo Amets Fabrika bete zuten maiatzaren 25ean, ia sei ordutako rock-and-roll saioan, Lou-ri merezitako omenaldia egiteko.

Zarauzko Lourdes Olangua 'Lou' ezizenez zen ezaguna aspalditik. Musika eta zine zale amorratua, 80ko hamarkada hasieran Los Humedecidos taldea sortu zuen zenbait lagunekin. Gerora, OK Korral izena hartu eta rock-and-rolla, garagea, rockabillya eta countrya egiten hasi ziren euskaraz. Lou frontwoman aparta zen, jakina. Euskal rockaren aitzindari honek zur eta lur utzi zituen garaiko zaleak bere jarra, estiloa eta estetikari ekser. Bi disko kaleratu zituzten: *Ok Korral* (Elkar, 1986) eta *Beti gogor beti mozkor* (Elkar, 1988). 90eko hamarkadan taldea desegin zenean, Louk hainbat banda rockero lagundu zituen, eta Nuevo Catecismo taldeko Arturo Ibañezekin, Anestesiako Belokirekin eta Federekin Las Lagartas taldea osatu zuen. Punktetik harago, Euskal Herrian rock-and-roll gitarreroa egiten zuten lehen taldeetatik hurbil aurki genezakeen beti: The Covers, Lusty Men, edota La Perrera kasu.

Minbiziaren kontra luze borrokatu ostean, aurtengo urtarrilean hil zen Lourdes Olangua eta rock-and-rollaren bueltan –non bestela?– ezagututako lagun andanak, Zarautz, Donostia, Trintxerpe, Bilbo, Getxo, Castelló, Leon eta beste leku askotatik etorriak, omenezko jaia antolatu zioten.

Desastrozombiesko kide batzuek hasi zuten gaua. Punk-rock gitarreroa Manoloren ahaleaginean. Jarraian Louren apopilo izandako Nuevo Catecismo Catolicokoek hartu zuten agertokia, eta beraien has-tapenetako kantuak –Louren gustukoenak– eskaini zituzten. tenperatura dezente igo zuten. Gonzalo abeslariak, Louk Fuzztones taldekoei antzina ebatsitako alkondara zermanan jantzita. Hainbat gonbidatuk hartu zuten mikroa, zein baino zein biziago: NCCko abeslari ohi Enekok tximak mugitu zituen, Dictatura eta Hellnationeko Juanma hardcore ukituak ematen aritu zen, eta El Inquilino Comunistarekin Primavera Sound-en jotzetik zetorren Ricky (Los Clavos) elektrikoa ere han izan zen. Bazen besterik ere.

Horien ostean, Anestesia laukoteak gaueko emanaldi motz eta bereziena eskaini zion Louri *Gora Lou eta*



Louren omenezko kontzertua maiatzaren 25ean iragan zen Zarauzko Putzuzulo Amets Fabrikan. Parte hartu zuten taldeak, honoko hauek izan ziren: Desastrozombies, Nuevo Catecismo Catolico (+zenbait gonbidatu), Anestesia (+Dani Ulacia + Izaskun Forkada), Vincent Von Reverb y sus vaqueros electricos, Safety Pins eta Lobo eléctrico. Goiko argazkian, NCC taldea eta Ricky (Los Clavos). Ezkerrean, berriz, Izaskun Forkada.

Loutarrak izenpean: Louren taldekide Dani Ulacia gitaran, eta 2Kate eta Naun-eko Izaskun mikroan, Ok Korralen *Gora eta behera*, *Motozerrako mutila* eta *Azken azal gorria* interpretatu zituzten thrasharen eta rock-and-rollaren arteko bideak okertuz. Errepikaezina!


Ilargi beteak ez zion gauari etenik egiten utzi: 15 urtetan agertokirik zapaldu ez duen Vicent Von Reverb taldea Castellótik etorri eta Louri eta munduko emakume rockero guztiei eskainitako emanaldi glamourosoa egin zuen Putzuzuloko agertokian. Gauak beste tonalitate ilunagoak hartu zituen Safety Pins amorratuenekin; eta erabat gorritu zen Lobo Electrico taldearen betirako agurra iragartzeko. Santik gidatutako liturgiak luze jo zuen eta aukera izan

zuten Dani Ulaciaren laguntzaz Humedecidos taldearen pieza batzuk ere interpretatzeko. Osoa sasoi onean eta harrera beroa, baina bidea bukatzeko beldur balira bezala, sobera luzatu ziren.

Ikaragarritzko giro ona izan zen egun eta gau osoan Putzuzulon eta belaunaldi oso desberdinetako jendea batu zen Loutaz oroitzera eta musikaz disfrutatzerara. Esanguratsua, esaterako, 80ko hamarkadan etsai ziren punky eta rockzale ugari elkartu eta elkarri laguntasuna adieraztea, garaiak aldatu direnaren eta Louk berak lortu zuen hur-bilketa horren seinale. ■

Iker Barandiaran





Bulegoko mahai gainean
lo seko geratu eta gero,
Parisko Lan-ministerioko
funtziona-
rio bat-
batean esna-
tu da.
Begiak igur-
tzi, nagiak
atera eta
erlojuari
begiratuta-
koan:



	S	T				V	G	Z
P	A	T	X	I		B	I	S
T	X	A	R			L	I	Z
U	S	U	K	I	E	X	A	N
U	O	S	A	G	A	I	B	E
S	A	I	L	H	A	S	T	I
		M	I	L	A	K	U	R
J	A	U	N	E	R	I	A	R
P	R	I	P	I	S	T	O	I
S	E	T	I	O	E	U	S	K
T	X	A	R	A	K	K	A	L
H	A	I	Z	A	R	Z	I	O

M30 Grebak eman duena

Bideoak, balorazioak, argazkiak...



Analisiak bideoetan

Atzo greba orokorra, eta gaur?

AXIER LOPEZ



Behe Bidasoa

Gipuzkoako eskualde gaztigatuenean
"ke asko saldu da"

MIKEL GARCIA IDIAKEZ



Goierri

Carrefour, 50 urte eta argazki bat

URKO APAOLAZA AVILA



Sakana

Eskualdea Inasako langileekin

ARGIA



Bilbo

Seigarrena

UNAI BREA



Donostia

Kalea itxita eta bozgorailutik keinu bat


GORKA BEREZIARTUA MITXELENA



Urola Kosta

Aurreko lanuzteen tankeran, ia dena geldirik

ONINTZA IRURETA AZKUNE



Euskal Herria ezagutuz

AMASA-VILLABONA (GIPUZKOA)

Soka beraren bi mutur

Elkarri lotuak, batean bilduak baina bi izen eta bi izan. Amasa landagunea bata, Villabona herrigunea bestea, elkarrekin osatzen dute Amasa-Villabona udalerria. Antzinako hariak iritsi dira gaurdaino, mendeetan zehar desberdin harilkatuak izan diren arren. Antza, Amasa izan baitzen Villabonaren sorburua. Sokari segika bi muturrak lotuko ditugu, berde koloreko paisaietan ibilbidea eginez.

Testua eta argazkiak:

| ENERITZ IRAOLA ODRIOZOLA |

VILLABONAN emango ditugu lehenengo urratsak. Donostiatik hogeikilometrora dagoen Tolosaldeako txoko honetara iristeko, N-1 errepidea edo tren eta autobus zerbitzuak ditugu eskura. Villabonako parrokia izango da abiapuntua, kolore horixakako kanpandorra aurkitzeko ez dago galbiderik. Goiko aldean ordularia ohi bezala bost minutu atzeraturik, beti arrastaka ibiltzen diren salbazio. Urrutira joan gabe, parez pare Subijana etxea ikusiko dugu. XIX. mendean Villabonak bizi izan zuen garapen industrialaren adierazlea da. Izan ere, *Subijana y Cía* ehungintza lantegiaren bulegoak eta nagusien etxebizitza izan zen eraikina ia ehun urtez. Bertan josi omen zituzten

Hego Euskal Herrian lehen aldiz ikurrinak. Berriki, etxea galtzera ez uzteko Udalak eraberritu eta euskal kulturaren eta batez ere bertsolaritzaren garapena lantzeko gune bihurtu da.

Ezkerrerantz, kalean behera eginez, Larrea eta Arroa auzoetarantz joko dugu. 70eko hamarkadan errepidearen obrak hasi eta herriaren hazkundearen ondorioz inguruak bizilagunez betetzen joan zirelako sortu zen auzunea. Ordura arte, mihise aurrean pintzelarekin maisulanak egiten zituen ilegorri baten erreinua zen ingurua. Lasaitasun horretan nagusitzen zen Etxeondo jauretxea, 30 urte luzez Bixente Ameztorenen bizitoki eta inspirazio iturri izan zena.

Ameztorenen lorratzetxe segika

Ingurua aldatu bada ere, antzinako edertasunez zelatatzen ditu bisitariak Etxeondok. Eraikinak jauretxe kutsu hura mantentzen du, Libanoko zedroak etxeko sarreran ongietorria ematen jarraitzen duelarik. Etxeondotik abiatu eta Amasa alderantz, egunero egiten omen zuen bueltaxka Ameztorek. Bere oinatzei segika, ezkerretik hartu eta Aranerrekara garamatzan bidetik aurrera egingo dugu.

Klorofila koloreari segika, hurritzez jositako parajecetan barneratuko gara, Ameztorenen koadro batean sartzen joango bagina bezala. Bidean baserri dotoreak ere topatuko ditugu. Musturi Azpi esaterako. Diotenez, San Martin elizan sobra-

Ezkerrean, Amasako plaza eta eliza. Eskuinean, Komizar atsedenlekua.





Errebotean jokatzen den Hego Euskal Herriko herri bakarretakoa da Villabona. Eskuinean: Etxeondo, 30 urtez Bixente Ameztorein bizitoki izan zen etxea.



tu ziren harriekin egin zuten. Nabarmenezkoak ditu arkuak, leiho dotoreak eta ataripea. Hurrengo bidegurutzean, ezkerredera ateratzen den bidetik igo eta Mikeligartza baserriaren alboko harraska ondoko iturrian ura edateko probestuko dugu.

Amasako errepidean barna, Komizar atsedentlekura iritsiko gara. Eguraldi ona egiten duenerako kontuan hartu beharreko txokoa da, zelai zabalek eta zuhaitzen gerizpean jarrita dauden mahaiek egun pasa ederra egiteko txoko apropos bihurtzen baitute. Gero, pinudi batetik jarraitu, bidegurutzean ezkerredera jo eta Mandabietara iritsiko gara. Orain arte egindako bidea PR-GI 120 izenez seinalatua da, lerro zuri-horien bidez marraztua. Gune horretan PR-GI 118arekin topo egingo dugu. Zuhaitzetan edo harkaitzetan egindako marra xumeak dirudite, baina lan handia eskatzen dute. Herriko Aizkardi Mendi tal-

dearen konpromisoaren ondorioz, lortu dute ibilbide horien izendapenak mantentzea.

Hortik Lasturrera jaitsiko gara eta aurreraxeago autobidearen gainetik pasatu ondotik, baserriak izango ditugu begi aurrean: Borda behekoa, Arrieta eta Kalatas. Denbora laburrean, hasierako puntura helduko gara. Pista asfaltatuari jarraituz Villabonako plazaranzko bidea hartuko dugu eta zorte apur batekin pilotakaden oihartzunak adituko ditugu, ikuskizun eder bat iragarritz.

Errebotearen oihartzunak

Hego Euskal Herrian, errebotean jokatzen den plaza bakarretarikoa da Villabonakoa. Euskaldunok jokatzen ohi ditugun pilota-joko guztien artean zaharretakoa. Villabonan joko honek izan duen sonaren adierazle da herriko plazari Errebote Plaza deitzea. Jokalari ezagunen harrobi, herrian ongi errotutako tradizioa izan da betidanik. Gaur egun,

Behar Zana elkarte ari da ohiturari eutsi nahian, heldu eta gazteekin lanean. Larunbat arratsaldeetan jokatzen dituzte partidak, arratsaldeko lauretatik aurrera; data zehatzik ezin esan ordea, denboraldia hasi eta pixkanaka partidak zehazten joaten direlako. Handia da elkarteak egiten duen lana, eta argia helburua: ez lukete Villabonako plazaren izena esanahi gabeko bihurtzea nahi.

Soka bakarra, zenbaitetan korapilatua, besteetan lasaitua... itxuraz ikusezina, baina mendeetan irautea lortu duena. Biak beharrezkoak; sokarik ez baitago bi mutur gabe. ■



Bisita tu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Zurekin,
alde ederra!

**elkarrekin
bide berri bati
ekinez**

AMASA-VILLABONA Villabonako udala



mila esker
**Amasa-
Villabonatar
guztioi**

Zatoz
bidea ezagutzera!
Kale Nagusia, 29 Behea
Ordutegia: egunero
11:00etatik 13:00etara
18:00etatik 20:00etara

informazio
bulegoa
**AMASA
VILLABONA**
GPS

Udaberriko gaixotasunak

UDABERRIAREKIN BATERA hainbat gaixotasun dator. Alde batetik, polena agertzeak zenbait gaixotasun alergiko okertzea dakar. Bestetik, eguraldi onak animoa hobetzen badu ere, zenbaitetan depresioak oker litezke. Eta azkenik, etxetik kanpoko jarduerak zenbait gaixotasun izateko aukera handitzen dute. Goazen horiek aleztzera.

Aurtengo udaberria umel eta ilun xamarra bada ere, eta polen mailak ohikoak baino baxuagoak izan arren, zenbait gaixotasun alergiko okertzen ditu. Begietan konjuntibitisa, malko eta begi gorriekin. Sudurrean errinitisa, sudur handitu eta muki ugarirekin. Eta biriketetan, asma. Gaixotasun horietakoren bat duenak kontu berezia izan behar du ingurune irekietan, batbateko asma agerraldia izan lezakeelako. Gure defentsen erantzun desegokia dagoenez horien guztien atzetik, berau ahultzen duten tratamendua ematen zaie gaixoei: kortikoideak eta antihistaminikoak. Dena den, defentsen erantzuna edo erantzun immunologikoa eraldatu eta moteldu genezake, polen kantitate txikiak gorputzari aurrez emanez. Modu horretan, polen kantitate handiak iristean, erantzuna askoz arinagoa izatea lor genezake. Tratamendu horri “txertaketa” izena ematen zaio, nahiz eta benetan ez den txertaketa prozesua. Aurten berandutxo den arren, datorren

udaberrirako aukera egokia izan liteke gaitz horiek dituenarentzat.

Eguraldi onak eta eguzki orduak luzatzeak gaixotasun psikiatriko askoren hobetzea dakar. Dena den, badira udaberrian okertzen diren depresioak ere. Zenbaitek diotenez, ingurukoak animoz gainezka ikus-teak, norbera gaizki dagoenean, depresioa okertzen du. Beste batzuek berriz, azalpen kimikoa ematen diote: eguzkiaren argiak melatonina izeneko gai kimikoa sortzen du, depresioa hobetzen duena, baina gaixo horiek ez lukete behar beste melatonina sortuko. Arrazoia bata ala bestea izan, udaberrian indarrak eta ezertarako gogorik gabe eta lorik egin ezinda bagabiltza, aha-

lik eta azkarren eskatu beharko genuke medikuaren laguntza, gaitz guztietan bezala erremedioa atzertzeak pronostikoa okertzen duelako.

Eta udaberrian, eguraldia lagun, etxetik kanpo denbora gehiago ematen dugunez, zenbait infekzio izateko arriskua handitzen da. Gastroenteritisak dira gehien ematen direnak, ondo garbitu eta maneatu gabeko jakiengatik. Gastroenteritis gehienak bere kasa sendatzen dira, bitartean galdutako ura edari isotonikoen bitartez hartuz. Hala ere, garrantzitsuena jakiak ondo garbitzea da, barazkiak bereziki, eta egoki prestatzea.

Goza ezazue udaberriaz! ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Irekierak

CAPSICUM ANNUM, piperminak bezala tomateak, *Solanum lycopersicum*, bere bizitza motza fruituan burutzeko lehenik loreak eman behar. Mozkin igali horretara iristeko hostoaren premia du, eguzkitara zabaldu eta argiaren energia-rekin beharrezkoa duen jaki mordoa sortu dezan. (Jarraitu aurretik, bide batez, honexek bereizten gaitu animaliak eta landareak: landareek lurretik eta airetik energia hartzen dute –argiaren bidez eraldatuz–, eta beren burua elikatzeko eta bizitzeko gai dira, animalioek, aldiz, biziko bagara, ia ia jan behar dugunoro beste bizidun bat akabatu behar dugu).

Hostoari eta loreari helduta, zein da lehena, hostoa ala lorea? Landare bakoitzak bere jokaera du. Batzuek aurrena lorea erakusten dute, ikusgarri, udaberri gose diren erleen erakargarri. Beste batzuek lorea eta hostoa paretsu zabaltzen dituzte. Eta lehenik hostoz janzten denik ere bada. Azken horiek haizeta behar izaten dute, jeneralean, polinizaziorako.

Horra Apirila, latinetik *aprilis*, *aperire*, ireki aditzetik, zuhaitzak eta

loreak irekitzen hasten diren sasoi, alegia. Baratzeak eta soroak antolatu behar dituztenentzat Jorrala da, euskarazko jorratu, lurra lantzetik, alegia. Opaila ere deitzen zaio, sasoi berrirako desirak eta eskaintzak bideratzeko azienda eta landare opak egiten omen zirelako. Abereila ere duen izena hortik ote?

Eta Maiatza? Eman-kortasunarekin lotzen den grekoen Maia jainkosaren izenetik datorrela diote. Ovidio poetak beste etimologia bat aitortzen dio: ekaina gazteen (*juniores*) hilaren aurretik dagoen zaharren (*maiores*) hila dela dio. Non ote dira gure Loraila, Orrila eta Hostoila? Gu Maiatzen; tokitan gaudel! Loretzak, orrikundeak eta hostajeak sortu direneko hilabetea denean.

Aurtengo giro zakur honekin hosto-orri eta lore-begiak ireki ezinik, puntta berrien kimuak



ANDRÉ KARWATH-CC BY SA

Tomatearen (*Solanum lycopersicum*) lorea.

azaltzeko beldur, izututa igaro dute udaberri berriena. Eta beti berandu bada, aurten bai dela berandu. Sasoi atzeratua, gero-ratua, gibelatua, belutua eta piztea luzatua. Loretarako batik bat...

Eta sagastiei begira gure aitonak honela dio, urtero, “apirileko lorea urrea, maiatzekoa ezer baino hobea”. ■



%75

Usainek oroimena pizten dutela jakina da. Erromeroak, *Rosmarinus officinalis*, usain berezia du, eta lehendik bagenekiena frogatu berri dute Ingalaterrako Northumbriako Unibertsitatean: bakoitzaren buruan ditugunak eta eginbeharrak gogorarazteko gaitasuna %75era arte hobe dezake usain horrek, baita iragana oroitzeko eta epe luzera oroimenak hobera egiteko ere. Itxuraz, erromeroaren usainean dagoen 1,8-cineol osagaia arnastuz odolera sartzen da eta oroimen prospektiboa, aritmetikoa eta abar hobetzearen erantzuleetako bat da. Shakespeareren 1602ko Ofeliak ederki zioen: “Hemen dakart erromeroa, oroimenerako ona dena”. Niri erromero usainak eliza zokoa gogorarazten didala ez dut berehalakoan ahaztuko. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

• Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23

☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net



Sumendiak kondenuatuari indultua eman zionekoa



Goian, Pelée sumendia gaur egun, eta, haren magalean, Saint-Pierre berria. Ezkerrean, 1902ko hondamendiak Martinikako hirian izan zuen eragina.

MARTINIKA, 1902KO UDABERRIA. Karibeko uhartean bi gertakari nabarmenek bat egin zuten: hauteskundeak eta Pelée mendiaren jardura bolkanikoak. Sumendiaren egoera kezkarria zen, ordurako atmosferara ke eta errauts kantitate handiak igortzen ari baitzen. Baina uharteko gobernadore Louis Mouttetentzat plebiszituak zeukan lehentasuna eta Pelée esnatu izana bere asmo elektorarak gauzatzeko oztopo gogaikarria izan zen.

Biztanleen artean izua hedatzeak, boto emailek ihes egitea eta, ondorioz, boto galera ekar zekioken. Horregatik bertako egunkari bakoarraren zuzendariari jardura bolkanikoari garrantzia kentzeko eskatu zion, ahal zela, erupzio arriskua ez aipatzeko. Sumendiaren magaleko Saint-Pierre herrira eraman zuen kanpainak, eta herritarrak lasaitzen saiatu zen. Ahalegin guztiak beharbada nahikoak izango ez zirelakoan, azkenean zirt edo zarteko neurria hartu zuen: hiritik irteteko bide guztiak ixteko agindua eman zuen.

Baina gobernadorearen planak eta naturarenak ez ziren bat etorri: 1902ko maiatzaren 8an, Louis Mottet Saint-Pierrera iritsi eta bihar-munean, sumendiak eztanda egin zuen.

Minutu gutxian 30.000 pertsona hil zituen erupzioak: gobernadorea bera, haren aldeko boto emaileak, oposiziokoak... Politikariari jaramonik egin gabe eta bideak itxi baino lehen ihes egitea lortu zuten apurrez gain, beste bi pertsona soil irten ziren bizirik laba eta gas uholdeak suntsitutako lurraldetik. Horietako bat lur azpiko ziega batean giltzapetutako Auguster Ciparis presoaren. Heriotzara kondenatu zuten eta exekuzioa maiatzaren 9rako iragarri. 24 ordu lehenago, Pelée lehertu zenean, kaiola babes bihurtu zen. Naturak zigorra barkatu zion, eta gizakiek, haren boterearen lekuko izan berri, ez zuten kontra egiteko adorerik izan. Sumendiak luzatutako indultua ofizial bihurtu zuten. ■



Arrastoak

Errepideak kontrako norabidean eraikitzen

BELIZEKO eraikuntza enpresa bateko hondeamakinek Moh-guleko piramideak suntsitu zuten joan den hilean. Errepide bat konpontzen ari ziren eta, horretarako hartxintxarra behar zutenez, lehengaiaren bila urruti ez joatea erabaki zuten enpresako arduradunek; 2.300 urte inguru zituen piramide maia, herrialdeko garrantzitsuenetakoa, txikitu zuten.

Israelgo Beit Kama kibutze-ko lursailetan ere errepide bat eraikitzeaz ziren. Lanak hasi baino lehen, derrigorrezko indusketa arkeologikoak egin zituzten eta, maiatzaren 12an, K.o. IV. eta VI. mende bitarteko hamabi metroko eraikin bat aurkitu dute, eta bertan, bizantziar mosaiko ederra. ■



CHANNEL 5 BELIZE



NATIONAL GEOGRAPHIC

Joan den hilean, errepideak eraikitze lanetan, 2.000 urteko piramide maia bat nahita suntsitu dute Belizen (goian). Beheko argazkian, bizantziar mosaiko aberatsa.

Oposizioaren kontsentsua edo planto egiteko modua ezbaian

LOMCE (Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa) edo Wert erreforma ipini dugu eztabaidan. Zumaiaiko Maria eta Jose Ikastetxeak antolatutako mahai-inguruan EAJko Jone Berriozabal, EH Bilduko Juanjo Agirrezabala eta PSE-EEko Juanma Aramendi izan dira hizlariak, artikulua honen egilea moderatzaile izaki. Hona laburpena.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Axier Lopez



Juanma Aramendi (PSE-EE), Jone Berriozabal (EAJ) eta Juanjo Agirrezabala (EH Bildu), mahai-inguruko solaskideak.

EUSKO LEGEBILTZARREKO lau alderdi nagusiak gonbidatu ditugu mahai-ingurura, PPren LOMCE edo Wert erreforma aztertzeko xedez. PPren aldetiko ezetza jaso dugu.

Zer egin beharko luke Eusko Jaurlaritzak LOMCEren aurrean. Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek neurriren bat hartu al du?

Jone Berriozabal: EAJk lege egitasmo horren zirriborroarekin desadostasun handiak ditu, Cristina Uriartek hala adierazi zuen kargua hartu berri-tan. Hezkuntza Saila alde biko edota berdinen arteko negoziazioa izaten saiatu zen, baina ministroak atea itxi zion aukera horri. Jaurlaritzak urratu ezin diren lerro gorriak seinalatu dizkio Wert ministroaren lan taldeari.

Jaurlaritzak kritika politikoa egiteaz aparte, nekez egin dezake zerbait une honetan. LOMCEri osoko zuzenketa jartzea aurreikusita dauka EAJk, hala ere, denok kontziente gara PPk gehiengo osoa duela Espainiako Gorteetan. Beraz, guk edo beste inork aurkeztutako osoko zuzenketa atzera bota ditzake. Guk zuzenketa partzialak aurkeztuko ditugu,



Jone Berriozabal (EAJ)

LOMCEk ez du hezkuntza sistema eta kalitatea hobetzen. Lehen akatsa hauxe da: gobernu aldaketa dagoen bakoitzean, hezkuntza legeak aldatzen dira, eta gobernu edota alderdi bakoitza bere arrastoa jartzen saiatzen da. Ondorioz, hezkuntza arloko araudiaren jarraikortasuna eta egonkortasun falta dira ikastetxeetan. Bigarrena: eskola porrotari dagokionean, datuak makilatu nahi ditu, Espainiako Estatuaren datuak Europar Batasunekoetara hurbilduz. Euskal Hezkuntza Sistemaren eta Europako sistemaren tasak hurbil daude, ez ordea Espainiakoak. Ahalegin hori egiten ari dira lege proiektu horren bidez, halaber, Estatuako autonomia erkidegoetan dauden eskumenak eta ezaugarri propioak urratu egiten ditu. Uniformatzeke eta zentralizatzeke begi-bistako nahia dago. EAJ aurka dago, LOMCEk ez duelako Gernikako Estatutuak ematen digun eskumen eksklusiboa errespetatzen. Euskadik hezkuntza araudiaren eskumen eksklusiboa du, eta lege egitasmo horrek erabat ukatzen ditu gure eskumenak. Oinarrian ez dago inongo azterketa zientifikorik edo teorikorik, inork ez daki zertan oinarritu den ministroa proposamen hau egiteko. Azkenik, honetan denok ados gaude, proposamenak ez duela adostasun sozial eta politikorik, kontrakoa. Gizartea batu egin da egitasmoaren kontra, ez alde.

ahal den neurrian negoziatu ahal izateko. Izapidea amaitu ostean ikusiko bagenu, Euskadik dituen hezkuntza eskumenak urratzen direla eta Euskal Hezkuntza Sistemarentzat kaltegarria den lege proiektu hori onartzen dela –zeren eta baliteke Wertek aurkeztu duena ez onartzea, beste talderen batek proposatutako zuzenketak sartuta baizik–, une horretan EAJk autogobernuaren defentsarako tresna guztiak abian jarriko ditu, bai politikoak baita, adibidez, besteak beste, Auzitegi Konstituzionalean helegiteak jarri ere.

Juanjo Agirrezabala: Cristina Uriarte sailburuak Madrilgo lehen bileran “hitx egin behar dugu, uste dut akordioetara iritsi gaitzkeela” esan zuen. Alegia, elkarriketa izango dela lege proiektu honi buelta emateko modua. Beraz, Jaurlaritzaren jarrera oso txepela izan da. Ez du egoera, ez herri hau, LOMCEren kontra lideratu. Kataluniako Gobernuak egin duena, adibidez. Erkidego honetan hori faltan hartu dugu. Orain, badirudi, Jaurlaritzak jarrera tinkoagoa landu nahi duela. Egia izango ote? Wertek lege egitasmo hau 2014ko ikasturterako onartuko dela dio. Zer egingo du Jaurlaritzak? Zuk, Jone, dauden bideak urratuko dituzuela diozu, baina bide horiek jorratuta ere, legea ezartzen bada, Jaurlaritzak ezarriko al du? LOM-

CEri erabat aurre egiteko prest al da EAJ? Egoera larria da. Legebiltzarrean denok gaude LOMCEren kontra. Eragile politikoak eta hezkuntza eragileak ados jartzeko ordua da. Legebiltzarrera etorriko denean ausardia espero dut EAJren eta PSE-aren aldetik, lege horri planto egitea.

guztien alde geunden. Diferentea da. Guk planto egin behar dela sinatu nahi genuen, LOMCE ez dela inolaz ere hemen ezarriko.

J. Aramendi: Juanjo, zuk nik bezala, hainbat urte egin duzu Gobernuan, eta ez dakit zertan egin duzun planto.

“Jaurlaritzaren neurriak autogobernuaren defentsan eta euskal hezkuntza sistemaren defentsan izan beharko dute, ahalik eta babesik zabalena jasoz hezkuntza eragilearen aldetik”

Jone Berriozabal (EAJ)

J. Berriozabal: Horixe ba!

Desobedientziaren bidea, intsumisia, planto egin... Noraino irits daiteke Jaurlaritzak LOMCEri aurre egiteko?

J. Aramendi: Gobernuan egon garenok badakigu noraino iristen den intsumisioaren esparruan jokatzeko. LOMCEren aurrean denon arteko kontsentsuak bilatzeko eta arduraz jokatzeko garaia da.

Ni, neurri batean, bat nator Juanjok lidergotzari buruz adierazi duenarekin. Gu zeharo harritu ginen Uriarte andereak “ikusiko dugu noraino ematen duen negoziazioak” esan zuenean. Guk erreforma hau kontrarreforma dela diogu, espiritu bereizlea dakarren legea atzerakoia. Eskola eredu hori ez dugu nahi ez Espainian ez Euskal Herrian, frantsesaren garaia itzultzea baita. Isabel Celaak [iragan legealdiko Hezkuntza sailburua] Wert ministroaren dimisioa eskatu zuen Gobernuan ginen garaian. Guri gustatuko

Zure ikuspuntua, Aramendi.

Juanma Aramendi: Ni bat nator Juanjorekin...

J. Agirrezabala: Argitu aldera, EAJk eta PSEk bat egin dute Legebiltzarrean...

J. Berriozabal: ...eta zuk azaldu beharko zenuke, zer dela eta abstenitu zen EH Bildu Eusko Legebiltzarrak lege proiektua erretiratzea eskatu zuenean.

J. Agirrezabala: Gu ez geunden erretiratzearen kontra, gu neurri

Juanjo Agirrezabala (EH Bildu)

WERTEN egitasmoak kutsu ideologikoa dauka. Espainiako Gobernuak ezarri dituen murrizketekin bat egiteaz gain, inboluzioa dakar, eskolaren birzentralizatzea eta uniformatzea. Atzerapauso handia da, euskal herritarren hezkuntzaren eta hizkuntzaren aurkako eraso. Euskal Herriak burujabetza osoa behar du hezkuntza arloan, euskal jendartearen arabera berezko erabakiak hartu ahal izateko. LOMCE Wert-en “ordenu eta agindu” delakoaren arabera egitasmoa da. Wertek ez duela sekula negoziatuko dio, legea “bai ala bai” onartuko dela. Beraz, ez du kontsentsurik nahi, hezkuntza komunitatearekin ez du ere hitz egin; PPren ideologiaren arabera legea izango da. Espainia gehiago planteatzen du, espainiar curriculumari begirako planteamendua da: EAEk %55aren eskumena dauka orain, aurrerantzean aldiz, Espainiako Gobernuak %60an finkatuko luke zeregina. Azterketak berak egingo ditu, curriculumaren ehuneko ehuna finkatuko du. Geure curriculumak finkatzeko aukerarik ez dugu izango. Ondorioz, euskal curriculumik ez eta euskara are murriztagoa. Euskara ez bigarren mailakoa, baizik eta hirugarren mailakoa izango da. Erlijioa ere gehiago. Euskal Hezkuntza Sistema gutxiagotu nahi du. Aginduak Madrilek eman eta Jaurlaritza delegazio bat izatea nahi du. Euskal Herria gutxiago izatea planteatzen du funtsean.



litzaiguke oraingo Hezkuntza sailburuak beste jarrera bat izatea, baita hezkuntza komunitatearekin batera LOMCEren aurka buru izatea ere, nahiz eta komunitatea ez dagoen Juanjok dioen bezain batuta. Artean, Rayoik hezkuntzarekiko atera zituen neurri bereziak –irakasleen ordutegiak edota ordezkapenak– errekurrituta daude, ezarri gabe. Beraz, jarraia tinkoak mantendu behar dira, baina, artean, ezin da intsumisiora jokatu. Mugak badaude.

J. Berriozabal: Planto egitearen kontua dela eta, Gipuzkoan ezaguna den agintari batek “agintari on batek ez lituzke lege injustuak bete behar” esan berri du. Mezu hori bera ekarri digu Juanjok, baina esaldi hura esaten zuen agintariak berak makina bat lege injustu betetzen ditu herri honetan. Hortaz, ez zait oso serioa iruditzen proposamen hori egitea, ez behintzat, gainontzeko bideak urratu ez ditugunean, hau hasi besterik ez da egin. Hilabete asko daramagu zirriborron ganean lanean, aztertzen, kritikak egiten. Benetako unea orain iritsi da. Orain ikus beharko dugu zer egin dezakegun, eta noski, ahalik eta adostasun zabalarenekin egin ere. Jaurlaritzaren neurriek autogobernuaren eta Euskal Hezkuntza Sistemaren defentsan joan beharko dute, ahalik eta babesik zabalena jasoz

hezkuntza eragileen aldetik. Hori da landu behar dugun bidea. EAJk hezkuntza komunitatearekin harreman zuzena du, eragileak askotan datoz Legebiltzarrera. Urtarrilean adierazpen bateratua zabaldu zen, eragileen sinadura jaso zuena. Guk bat egin dugu manifestuarekin, baita Legebiltzarrean legearen kontra egiteko hartu zen erabakiarekin ere.

“Jaurlaritzaren jarrera oso txepela izan da. Ez du herri hau LOMCEren kontra lideratu. Adibidez, Kataluniako Gobernuak egin duena”
Juanjo Agirrezabala (EH Bildu)

J. Agirrezabala: Hezkuntza eragileen %99 ados agertu zen manifestuarekin. Adibide ona da LOMCEri erantzuteko. Hezkuntza eragileek alderdi politikoei eskatzen digute ados jartzeko PPren egitasmoaren aurrean. EH Bilduk prestutasuna adierazi dio Jaurlaritzari. Honek aurre egiteko pausoak ematen baditu, bidean elkar topo egin dezakegu. Desobedientzia, planto egitea edo intsumisoaren bidea ezberdinak dira, gradualki gauzatzen diren kontzeptuak, ados, baina zergatik ezin da desobedientziaren bidea kontuan

hartu eta landu? Hori da hain zuzen ere Gobernu honen aldetik ikusten ez duguna, zeren eta platera jateko ematen baldin bazaigu azken finean jan egin beharko dugu osorik. Hori da arduraz jokatzeko? Nahi ez dugun plateretik jatea? Madrilek ez du atzera egingo. Legea Kongresuan aterako da mobilizazio guztien gaitetik, Estatuko Hezkuntza Kontseiluak berak esaten duenaren gaitetik. Jone, emendakinen bat egin, eta hau edo hori aldatu daitekeela esan duzu, baina edukia, oinarria, ez da aldatuko. Neronek Jaurlaritzak horren kontrako oposizioa lideratu behar duela diot, esan nahi baita, lehen unetik aurrean jarri eta azkeneraino joan. EAJri asko gustatzen zaio Gipuzkoari begiratzea [Joneri]. Pozten naiz, eredugarria delako, ikasteko gauza asko daukazuelako. LOMCE injustua da, herri honi kontra egiten dio. Beraz, herri honen subiranotasuna aldarrikatu behar da. Legebiltzarrean gehiengoak gara. Gu prest gaude desobedientziaren bidea esploratzeko, zuek prest egongo bazeundete.

J. Aramendi: Subiranotasuna? Oso ondo. Egunen batean, herri hau EH Bilduk nahi duen bezala egoten bada, beste jokaleku batean egongo gara, baina gaur egun jokatu behar dugu gauden lekuan eta unean, daukagun ordenamendu juridikoarekin.



Juanma Aramendi

LOMCE irakurrita ematen du Francoren garaitik hona ez dela pausorik eman. Beraz, azken hamarkadatan irakaskuntzan eman diren aurrerapausoak baloratuta, nire ikuspegia oso ezkorra da. Estatuko erkidego autonomoetan lege berberarekin emaitzak ezberdinak dira. Egun, eskola porrotaz hitz egitean, Estatuko porrotak eta EAEko porrotak ez dute zer ikusirik. Datuek ez dute parekorik eta legea bera da. Alderdi sozialistak oso garbi dauka, lege egitasmo horrek inboluzioa eta kontrarreforma eragin nahi ditu, ez da erreforma bat egitea. Wert-ek kontsentsuaren beharra aipatzen zuen iraganean, gaur egun, zeuden kontsentsuak apurtu nahi ditu eta horiez gain lege proiektu hori atera dute, eskola porrotaren aitzakian eratu dute beren proiektua, eta lege horren bidez eskola merkea egin nahi ote duen nago. PSOEko ministro ohi Gabilondok esan zuenez, hezkuntza inbertitzea oso garestia da, baina pentsa dezagun zein garestia den ez inbertitzea. Zer etekin aterako dugu, hezkuntzan inbertitu gabe? Krisia eta ekonomia arazoak ditugu, baina ez badugu inbertsioa sustatzen hezkuntza sisteman oker goaz. Kontrarreforma hau hor kokatzen da. Alderdi sozialistaren iritziz, LOMCEk PPren eta Espainiako alderdi kontserbadoreen eragina jaso du, hiritartasunaren aurka doa, urtetan landu den espirituaren aurka.

Diskurtso horrek balio lezake jokaleku horretan kokatuta bageunde. Adibidez, EH Bilduko EA, Juanjoren alderdia hain justu, urtetan egon da agintean. Non zeuden zure planteamenduak orduan? Nik uste dut diskurtsoak beste bide batetik joan behar duela, orain arte herri honek landu dituen ondarearen balioak aintzat hartuz. Hau da, lege berberarekin Euskadin ez da eskola porrotarik izan, besteak beste, herri honetan kontsentsua egon delako.

Euskal Hezkuntza Sistemaren gabeziak bat lege propio eza omen da.

J. Aramendi: Nik lege propioa dugula aldarrikatu nahi dut.

J. Agirrezabala: Dauzkagun legeak dira: Euskal Eskola Publikoari dago-kiona –1984an onartua, harrezkero ez da berritu– eta Euskararen Normalizatorako Legea. Besterik ez.

J. Aramendi: Baina horiek izan ditugu oinarri azken urteetan hezkuntzan eman diren urratsak eman ahal izateko. Non zegoen euskara lege horiek gauzatu ziren arte? Zer ibilbide egin du euskarak ordutik hona? Zenbat irakasle genituen euskaldunduak orduan, irakaskuntza euskaraz garatzeko? Irakasleen %5a. Egun %90 dira. Lege horiek izan ditugu aurrera egiteko, eta hori Euskal Herriko eta EAEko berezko

ondare bezala aldarrikatzen ditut. Bestelako jokaleku batean bagina, beste egoera batean ginatke, baina egun, gure ordenamendu politikoa- rekin eta eskura dugun legediarekin, gure sistema propioa eraiki ahal izan dugu. Emaitzak lekuko. Nik indarra hor ipiniko nuke. Orain, berezko hezkuntza sistema garatzeko prest al gauden? Ados. Legedia berritzeko prest gaude, baina orain arte egin duguna aintzat hartuz. Kontsentsua izango da oinarritzkoa legea egiteko.

J. Agirrezabala: Guk ez diogu uko egiten berezko legea izateari. Legea tresna bat da. EAEn egin dezakegu berezko lege bat. Egia da dependenzia dagoela Madrilekiko, han finkatzen baita oinarritzko araudia, autonomia guztietan berdina dena. Guk nahiko genukeen esparrua ez dauka- gu, geure legez jantzita. Guk subira- notasuna nahi dugu, bertatik eraba- kitzeko bertakoentzat, hori da gure eredua. Euskal Hezkuntza Sistemak norantz goazen argitzeko definizio bat behar du, eta EH Bilduk egina du: demokratikoa eta euskalduna. Eredua badaukagu, gehiago definitu beharra dago eta horren arabera gauzatu behar dugu legea. Egia da, Euskal Eskola Publikoa 1993tik abian da, dekretu eta arau asko gara- tu dira. Juanmak esan duenarekin bat nator, hemengo emaitzak ez dira Estatukoak bezalakoak, adierazle

ezberdinak daude: Haur eskoletako, DBHko eta Unibertsitatera bitarte- ko datuek ez dute Espainiakoekin ezer ikustekorik. Eskola porrota hemen %12 da eta Estatuan %26. European, berriz, batez bestekoa, %10. Beraz, garapenak emaitza onak ekarri ditu, baina badira defizit asko hala ere, eta etorkizunari begira eus- kal hezkuntzarako lege propioa gara- tzea proposatzen dugu. Guretzat legea ez da helburu, tresna baizik.

J. Berriozabal: Juanmarekin bat nator, hezkuntza sistema eraginkorra izan da kontsentsua izan dugulako. Hori ukazina da hezkuntza eta hiz- kuntza kontuetan, emaitzak ezinbes- tekoak dira iritsi garen egoerara iris- teko. Hortaz, lortuko dugun akordioak ezin izango du orain arte- ko adostasuna baino gutxiago izan, babes gutxiago izan. Bestalde, eus- kaltzale eta abertzale bezala, bat nator Juanjorekin, eskola euskalduna eta herrikoia izatearekin, baina horre- taz gain, eleaniztuna eta modernoa ere izan behar du. Bide hori urratzen hasiak gara, horri eutsi behar diogu.

Berezko lege izatea omen den gure gabeziak bat? Bai. Honetan ere Juanjorekin bat nator, legea tres- na bat dela esatean. Baina sarritan, tresnak eta helburuak nahastzen ditu- gu. Tresnak abian jarri baino lehen helburuak ondo zehaztu behar ditu- gu guztion artean. Uneon beharrez-

koa den tresna, legea edota araudia osatu beharko dugu, betiere, adostasunez iraungo badu, eta ez hurrengo gobernua iritsi eta aldatua izateko, LOMCerekin gertatu bezala.

“Eusko Jaurlaritzarentzat Wert-en erasoa estrategikoki pagotxa da. Horren aurka jo besterik ez badu egin, oso eroso egongo da Jaurlaritza”. Horra, Ikastolen Elkarteko presidente Koldo Tellituk esana.

J. Berriozabal: Ez dut ulertzen zer esan nahi duen. Inolako oinarririk ez duten susmoak iruditzen zaizkit. Ez zait arduratsua iruditzen milaka pertsonen osatutako elkarte baten ize-nean horrelako adierazpenak egitea. Horietako asko ez daude ados pertsona horrek esan duenarekin. Pagotxa litzateke Wert ministroaren legea aldarrikatuko bagenu edo alde bakarreko edo ezberdinen arteko eztabaia onartzeko prest bagina.

J. Agirrezabala: Tellituk dioena da, zuek jarrera aktiborik hartzen ez baduzue, zuentzat egoera eroso izan daitekeela: “Wertengandik heldu zaigu, eta guk bete besterik ezin dugu egin”. Hori da nik ulertzen dudana. Funtsean, Jaurlaritzak Wert-en legearen aurkako jarrera lideratu behar duela dio. Dena den, Hezkuntzari bestelako ezaugarriak ezarriko zenizkiokela esan duzu, Jone. Nik ausardia falta ikusten dut EAJrengan. Zuk eleaniztasunaz hitz egin duzu, alderdi sozialistak hiru eleaniztasunaz, PPk gaztelaniaz, UPyDk dio euskaraz ez duela lehentasuna sistema honetan. Eta guk Euskal Hezkuntza Sistemak euskaldun eleanitzak egin behar dituela diogu.

J. Berriozabal: Ados, beraz...

J. Agirrezabala: ...tira, bai zuri bai Hezkuntza sailburuari esan nizuen Legebiltzarrean, ea prest zeundeten tribunan esaten duzuen abian jartzeko. Zuek esan, bai, esaten duzue, programan ere idatzita duzue, euskarar ardatz izango dela. Baina urratsak emateko prest al zaudete? Prest baldin bazaude, gu bidean aurkituko gaituzue. Adostasun puntua edo heldulekua izan daiteke euskal hezkuntza sistema gauzatzen hasteko. Juanma, baldin egia bada Celaá andereak

“Erronka, eskola XXI. mendean kokatzea da. Eskola osoki, euskara ere bai, gure ondaretako bat da, baina hori bezala elkarbizitza ere bai, herri honek bizi izan duen historia landu egin behar da”
Juanma Aramendi (PSE-EE)

dioena, “euskara dela sistemaren zentraltasuna”, ados. Printzipioz, sinetsi behar diot, baina ahal dudan punturaino. Hiru eleaniztasunaren kasuan esan nion, zergatik ez duzu ezartzen %60 gutxienez euskararen alde. Ez zuen erantzun. Behintzat, zuek esan duzue euskarak ardatza izan behar duela. Euskarari buruz hitz egiten dugunean, emaitzak argi eta garbi daude, ezin ukatuzkoak dira hobekuntzak, asko eman dira, bai irakasleetako %5tik %90era pasatzean, baita ikasleen emaitzetan ere. Baina argi dago ere, euskarak badituela erronka inportanteak. Euskara jarri behar dugu hezkuntzaren erdigunean, zalanztarik gabe. Guk euskaldun eleanitzak nahi ditugu lehenik, baita gaztelania, ingelesa, eta zergatik ez frantsesa dakizkitenak ere.

J. Aramendi: Gu Gobernuan egon garenean, hori egin dugu, ez sinetsi bakarrik. Ibilbide hori jorratzen hasi gara eta gaia mahai gainean ipini. Inposaketarik gabe. Hiru eleaniztasuna indarrean jartzeko esperimentera jardun dugu, adostasun batera iritsi ginen hezkuntza komunitatearekin. Pauso horiek eman behar dira.

Erronka, eskola XXI. mendean kokatzea da. Eskola osoki, euskara ere bai, gure atal eta ondaretako bat da, baina hori bezala, teknologiak, elkarbizitza.... Herri honek bizi berri duen historia ezagutu eta landu egin behar da. Elkarbizitzan lortutako akordioak hor daude, biktimak eskolara ekarriz. Eskola 2.0 delakoren bidetik etorri diren aurrerapausoak, horiek denak, ebaluatu eta zehaztu behar ditugu. Adostasunera iritsi behar dugu. Akordioak behetik gora eta ibilbide bateratua egin beharko dugu. Ea bide horretan aurkitzen garen, oxala! Eskola mota berri hori denon artean bulztatu behar dugu.

J. Berriozabal: Nola ez gara ados egongo euskaldun eleanitzak sortzearekin? Mundu guztia dago horrekin ados. Ez jarri aurpegi hori [Juanjori]. Euskaldun eleanitzak aberastasuna baino ez dio ekartzen norbanakoari eta gizarteari. Orain erronka da ikasle guztiek hizkuntza gaitasuna hobetzea, ez ingelesean soilik, baita bi hizkuntza ofizialetan ere, euskaraz eta gaztelaniaz. Euskara oinarritzko zutabe da gure sisteman. Euskara ardatz duen sistema orokortzea proposatzen du EH Bilduk, baina denok kontziente gara euskara ardatz duen D ereduak Zumaian primeran euskalduntzen duela, inguruak aukera paregabea ematen duelako. Baina euskara ardatz duen D ereduak beste zonalde batean ez du eragin bera. Beraz, ikasle guztiek hirugarren edota laugarren hizkuntzan hobeto egin dezaten erronka daukagu, eta lehenik, noski, euskaraz hobeto egin beharko dute Euskadi osoko ikasleek. Horretarako eskolaz kanpo eta eskolaren inguruan bestelako ekimenak planteatu behar ditugu. Eskolak asko eman dezake, baina batzuetan ezin dezake dena eman. Eskolak gehiago emateko gainontzeko eremuek ere lagundu beharko dute. Inguruak asko laguntzen du, ez bakarrik hizkuntza kontuetan, hezkuntzari dagokionean ere bai.

Astelehenetik ostiralera bitarteko orduak direnak dira, hortik kanpo ere lan egin behar da. ■



Aresketa Ikastolan erabilera da helburu

Ekainaren 16arekin, Amurrion izango da Araba Euskaraz jaia, Aresketa Ikastolak antolaturik. Laugarren aldiz hartuko du Araialdeko herri honek euskararen eta ikastolen jai handia. 34 urte dira sortu zenetik, euskararen irakaskuntza beti helburu. Erabilera da oraingo xedea.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

EUSKARAK HERRIAN duen egoerari dagokionez, Aitor Garate zuzendariak azaldu digu: “Inguruan, denek ezagutzen dute euskara. Amurrioko gazteetan, ia denak dira ulertzeko eta hitz egiteko gai. Besterik da egiten duten edo ez. Horretaz badaki Onintzek, gure lehendakariak, ikastolako lehen promoziokoa baita—haren aita, Jesus Gerra, ikastolaren lehenbiziko lehendakaria izan zen—, euskaraz ondo daki, baina Amurrion ez da euskara erabiltzeko ohiturarik”. Justuki, hari horretatik tiraka dator jaiaren leloa ere: *Mihian kili-kili, euskaraz ibili*. “Erabileraren garaia da. Euskaraz badakigu, baina ez dugu erabiltzen. Euskara erabiltzeak gure barnean sortzen duen poza aldarrikatu nahi dugu lelo horren bidez. Ez da herriarekiko konpro-



Aresketa Ikastolaren atarian, ezkerretik eskuinera, Aitor Garate zuzendaria, Onintze Gerra lehendakaria eta Anjel Olalde Araba Euskaraz koordinatzailea.

Amurrioko Udala

Juan Urrutia plaza z/g
01470 AMURRIO
Tel.: 945 89 11 61
Faxa: 945 89 16 45
amurrio@amurrio.org
www.amurrio.org

misoa bakarrik, poza eta zirrara baik, euskaldunak euskaldunarekin euskaraz hitz egiten duenean sentitzen duena. Marrazkia mezu horri laguntzera dator: *pika-pika* goxokiak ahora sartzean eragiten dituzten txinparten adierazgarri dira izar horiek. Ikastolan bertan sortu genuen ideia”, dio zuzendariak.

“Amurrio abertzalea da, Araia osoa da abertzalea, euskaraz ikasten dugu, baina erabiltzeko garaian ez dugu aurrera egiten”

Onintze Gerra,
ikastolako lehendakaria

Erabileraren erabilera eza

Asteartea da, arratsaldeko 4:30ak –ikasleak irteten diren garaia–, Aresketa Ikastolara sartu garenean. Hitz bat ere ez dugu entzun euskaraz, Arrue ikerketaren ildoan. Nola

zioen delako ikerketak: “Gelan baino eremu zabalagoa du gaztelania jolastokian. Adibiderako: LHko laugarren mailan, hamarretik seik batez ere euskaraz egiten dute ikasgelan; jolastokian, berriz, hamarretik seik egiten dute batik bat gaztelaniaz. DBHko bigarren mailan are handiagoa da portzentajea: lautik hiruk beti edo ia beti darabilte gaztelania”. EAEko ikastetxe da horretan Aresketa Ikastola. Aitor Garateren azalpena ondokoa da: “Gure ikasleek gaztelaniaz hitz egiten dute familian. Ikastolako atetik irten orduko gaztelaniaz jasotzen dute gurasoen agurra, eta ondorioz, aldatua dute hizkuntza”.

Erdia baino gehiago dira euskaraz ez dakiten gurasoak Aresketa Ikastolan. Adibide modura gela bat hartu dugu. Lehen Hezkuntzako 6. mailako gela bat. 17 dira ikasleak, etxean euskaraz mintzo direnen bila abiatu gara Aitor Garateren eskutik: “Xabin, Harritxu, Pello, Erlantz, Aitor... bospaseik hitz egingo du euskaraz etxean”. Ikastolaren lehendakari eta ikasle ohi Onintze Gerrak

Bi gela berri

2005EAN, artean ez zen finantzakrisiaren hotsik. Geroztikakoa da egoera latza. Urte hartan, Araba Euskaraz hartu zuelarik Amurrioko ikastolak, jolasleku estalia egiteko baliatu zuen, besteak beste, bildutako diruaren parte bat. Itunpeko ikastetxe den aldetik, diru-laguntza jasotzen du herri erakundeetatik, baina murrizketa sasoia heldu da horra ere. Gaur egun, eraikinean egokitzen zenbait egitea dute helburu ikastolako ardura-dunek. Masifikazioa eta irisgarritasuna dituzte arazo, eta bi gela berri egokituko dituzte berehalakoan, batetik. Baina masifikazioa eta ikastolarainoko irisgarritasuna ez baitira besterik gabe konpontzen, herri erakundeekin ari dira lanean, soluzio bila. “Lehenengo, bi gela berri behar ditugu datorren irailerako”, esan digute.



Torre de Oña, norberaren izaerari eustearen balioa. Jatorrizkoa

Torre de Oña Arabar Errioxako eremurik pribilegiatuenean sortutakoa da. Bere lursailik onenean, non bere mahastiek aparteko lurralde baten esentzia eskaintzen baitigute: bere-berea, berriztatzailea eta gaur eguneko. Besterik ez den bezalakoa.

TORRE DE OÑA

www.torredeoña.com

Jarrai gaitzazu:



osatu du argazkia. 14 urte zituela, duela 25 urte “utzi” zuen —utzi gabe, utzi—, ikastola: “Nire adinekoek eta gazteagoek badakite euskaraz, baina ez dute erabiltzen. Ikastolan ikasi dute edo AEKn, baina hitz egiteko ohiturarik ez”. Zerutik jakina da hori eta tartean arrazoi asko diren arren, adina da gorabeheretarik bat Aitor Garateren iritziz: “Nerabeak agindutakoa ez betetzeko duen nahia, araua ez errespetatzeko joera, debekatuta dagoenaren erakargarritasuna”. Euskararen erabileraren kaltetan.

Herrian, AEK-ko irakasle izana dute alkate. Euskalduna eta euskaltzalea, behingoz. “Bi urte daramatza karguan, berria da oraindik. Lehenengoz dugu alkate euskalduna Amurrión”, dio zuzendariak. Onintze Gerraren iritziz: “Nahiko paradoxa da. Amurrio abertzalea da, Araia osoa da abertzalea, euskaraz ikasten dugu, baina erabiltzeko garaian ez dugu aurrera egin”.

Ikasle ohien konpromisoa

Eskolaz kanpoko ekintzen helburuetan da euskararen erabilera. Baina lanak dira hor ere. “Saiatzen gara euskarak bere lekua izan dezan. Ikasle ohiak ditugu eskolaz kanpoko ekintzen arduradun gehienak eta horrek, nahitaez, euskararekiko konpromisoa dakar. Baina hor ere, neska-mutilek gelatik kanpo ikusten dituzte beren buruak, aktibitate formaletik kanpo, eta beraz, gaztelaniaz aritzen dira”, dio zuzendariak.



2 urtetik 16ra arteko ikasleak daude Aresketa Ikastolan.

Ikasle ohiak baino lehen, izan dira ikastolari atxikimendua eta sostengua erakutsi dioten pertsonak. Aurten omendu biak ditugu adibide, Erramun Martikorena eta Karlos —baina Karlitos—, Larrinaga, aurten hila. Onintze Gerrak esan duenez: “Hiru alaba zituen, ikastolan ikasi zuten, eta Karlos bera musika irakasle izan genuen sasoi batean. Musu truk etortzen zitzaizgun. Denbora libre zuenean ikastolara etortzen zen gitarra hartuta, eta betiko kantuak erakusten zizkizgun. Abesbatza zuzendaria ere izan zen herrian, oso gustuko zuen musika”. Bizian eskertzerik izan ez zutena, hil ondoan omenduko dute.

Bestelakoa da Erramun Martikorenaren kasua. Amurriorekin zuzen loturik ez bada ere, miresmen handia diote Araban, festaren koordinatzaile Anjel Olalde dioenez: “Bai, garai batean, Araban euskararen inguruan biltzen zen jendeak Erramun zuen erreferentzia. Ipar

Euskal Herritik zetorren kantaria, Arabaz kanpotik, baina hari begira egon zen zenbait jende”.

Mibian kili-kili... lema, logo, kanta eta omendu, badator Araba Euskaraz, ikastolaren oraina eta iragana lotzen dituelarik Onintze Gerra lehendakariak: “34 urte! Etxebizitza batean hasi ginen, Mendiko Lagunak elkarteak utzirik. Ondoren, udalak aurrefabrikatu batzuk utzi zizkizgun, eta hantxe sartu ginen.

Handik, beste aurrefabrikatu batzuetara —duela bederatzirte elurrak hango sabaia eraitsi eta ikastola honetara ekarri behar izan genuen hango Haur Hezkuntza osoa—, eta handik orain institutua dagoen lekura, baina garai hartan tailer zahar batzuk ziren hor! Batek bestera ibili gintuzten. Eta nik ikastola utzi behar nuen garaian Aresketa Ikastola hau egin zuten. Ez nuen hau ezagutu, gurea ‘Amurrioko ikastola’ zen”. Orduan bizi izan ez zuena bizi du orain Onintze Gerrak, bizi dute 500 ikasle baino gehiagok, hainbat ikasle ohi, makina bat irakasle, irakasle ohi eta gurasok, eta alde edo moldez, Amurrioko herriak. Onintze Gerra lehendakariaren azken hitzak ditugu: “Asko aldatu da ikastola, eraikinak eta beste, baina mamirik ez du aldatu. Bai, orain bi urteko haurrak hasten dira, ingelesa irakasten da, baina mamia bera da, ikastola da”. Ikastola mami, euskara mami. ■





Araba Euskaraz 2013
Ekainaren 16an AMURRIOra!



Laudio Llodio
LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO












Laudioko Euskara Arloa · Herriko Plaza, 8 · ☎ 944034890 · euskara@laudiokoudala.net · <http://www.laudiokoudala.net>

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Kanadako elebitasunaren bi zutabe ahulak: gazteak eta etorkinak

KANADAN elebitasunaren (frantsesa-ingeles) bilakaeraren ikerketa aurkeztu berri dute. 1961-2011 urte arteko ikuspegia eman dute, eta erakunde publikoak kezkatuta daude. Québec probintzia elebitasunaren irla bihurtzen ari da. Frantsesez eta ingelesez hitz egiteko gai diren hiztun kanadarren %57 Québecen bizi dira. Beste era batera esanda, Québecen biztanleen %42 elebiduna da. Bistan denez, halako proportziorik duen beste probintziarik ez da. Elebidun gehien duen bigarren probintzia Ontario da. Kanadako elebidunen %23 bizi dira Ontario. Frantsesa eta ingelesa hitz egiten



“Québec elebiduna, Québec hobea da”, dio neskak heldutako afixak ingelesez eta frantsesez.

duten biztanleen %86 hiru probintzian pilatzen dira. Québecetik kanpora, batez bestekoa aterata, %9,7 baino ez da elebiduna.

Erakunde publikoek begia bi kon-

tutan dute jarria: gazteak eta etorkinak. Eskoletan frantsesez ikasteak indarra hartu du azken urteotan, baina elkarrizketa arrunt bat frantsesez egiteko gai diren gazteen ehunekoak behera egin du. 1996an, 15 eta 19 urte artekoen %15 zen horretarako gai, eta gaur egun %11.

Etorkin askok ikasten du frantsesa, baina bertakoen proportziora ez dira ailegatzen. 250.000 biztanle iristen dira urtero Kanadara. Etor- kinen %6 da elebiduna.

Aldiz, Québecetik kanpora bizi diren bertakoen %11k daki frantsesez eta ingelesez. 30 urte barru herrialdeko biztanleria hazkunderen %90 etorkinen esku egongo da.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsio publikoak defendatu, duinak eta eguneratuak

PENTSIOEN ERREFORMAZ “adituen batzordeak” Espainiako Gobernuari egingo dion proposamenaren inguruan hainbat datu argitaratu dira egunotan. Badi-rudi gaur egungo eta etorkizuneko pentsionistei era-gingo diela. Hitz gutxitan esanda, pentsioek erosteko ahalmena gal dezatela proposatuko dute. Hala, pen- sioak ez lirateke inflazioaren arabera eguneratuko, gutxienez KPIa adina igotzeko automatismoa desa- gertuko bailitzateke. Horren beharrean, “adituek” proposatzen dute eguneraketa automatikoa Gizarte Segurantzaren finantza egoeraren menpe egotea: hau da, pentsioak Gizarte Segurantzak izaten dituen diru- sarrera eta gastuei egokitzea. Irizpide hori gaur eza- rriz gero, pentsioak asko murriztuko lirateke. Etorki- zuneko pentsionistek jasoko luketen zenbatekoa berriz, bizi itxaropenarekin kalkulatu litzateke.

Bistan da pentsioetan dagoen gastu publikoa murriztu nahi dela. Erreforma berri hau inposatu nahi dutenak bankuak dira –BBVA eta Santander batez ere–, euren aseguru-etxeen bidez. Ez da kasua- litatea Mapfre, Aviva eta BBVA gisako aseguru etxee-

tako ordezkariak osatzea “adituen batzordea” dela- koa. Eurek jadanik bermatuta dituzte pentsio pribatuentzako plan gozoak.

Erasoaldi kapitalista berri honen aurrean, pentsio publikoak defendatu behar dira. Sistemaren “iraun- kortasuna”, hazkundera eta enplegua sortuko duten politika ekonomiko egokien bidez lortuko da: paradi- su fiskalak eta iruzurra desagerraraziko dituen zerga erreforma erradikala eginda; gastu militarra deusezta- tuta –Espainiako Defentsaren urteko aurrekontua 7.000 milioi eurokoa da eta 2025 arte 31.000 milioi euroko zorra du–; eta obra faraonikoentzako gastu publikoa ezabatuta. Hego Euskal Herrian, Gasteiz eta Iruñeko gobernuek gaur hemen kotizatzen dugunoi pentsio publikoak bermatu behar lizkigukete, pentsio duinak eta eguneratuak. Berriz ere nazio subiranota- sunik ez izateak kaltetzen gaitu.



Juan Mari Arregi

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



Gipuzkoa
BERRIA

BAGOAZ!

GIPUZKOA 2016 > %60 BIRZIKLATUTA

Obamaren gerra bideo-jolasa balitz, orduan bai ondo

Sei urtetan barrena militar yanki honek 6.000 orduez pilotatu zituen erasoko hegazkin militarrek... urrundik. “Sekula ez nuen pentsatu hainbeste jende hilko nuenik”, aitortu dio kazetariari, armada utzitakoan kontatuz bere amesgaiztoak. Piloturik gabeko hegazkinen kirurgia ez da odolik gabea: biktimak urrutiko jendeen artean, biktimak etxeoketan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

LONDRESEN MAIATZAREN 22AN soldadu britainiar bat kale gorrian kalitu zuten hiltzaileetako batek oihuka esaten omen zuen: “Damu dugu emakumeek hau ikusi behar izana, baina gure lurraldean hauxe da gure emazteek ikusten dutena”. Eta aurreraxeago: “Zin dagigu Allah handiaren izenean beti borrokatuko zaituztegu. Egin duguna egin dugu egunero hiltzen diren musulmanengatik”.

Mendebaldeko kazetariok asko haizatu ditugu *drone* izenez (eulitzar edo erlamando ingelesez) ezagunagoak diren pilotu bako hegazkinen alde teknikoak. Aldiz, gutxiegi aipatu zein heinetaraino zabaldu duten izua herrialde askotako jendeen artean urrundik kontrolatutako hegazkinen erasoek. Funtsean Ekialde Hurbilekoetan, Pakistandik hasita Gazaraino, ahaztu gabe Somalian gertatzen direnak.

Joan den otsailean Lindsey Graham AEBetako Senatuko kideak ozenki aldarrikatu zuen beren armadak 4.700 jendez goiti hil dituela urrundik gidatutako hegazkinen misilez. Eulitzarron erabilera zabaldu beharra honela defenditu zuen Grahamek *Easley Rotary Club*-ean: “Batzuetan errugabeak jotzen dituzu, eta nazka ematen digu; baina gerran gaude eta Al-Kaidako buruzagi garrantzitsuak hil ditugu horiei

esker”. Pakistanen, Yemenen eta Somalian gertatu dira horietako eraso gehienak, ahaztu gabe Afganistanen, Iraken, Gazan eta beste leku askotan egindakoak. Erasook dira gau eta egun lurralde horietako populazioek beren buru gainean sentitzen duten etengabeko zaindaritza itogarriaren une gorenak.

Gerrak AEBetan ere sortu ditu bere lehen biktimak. Gerra guztietan bezala, soldaduen artean. Vietnamgo beteranoak zahartu direnean, Irakekoak adinean gora... hogeita hamar urte azpiko zaurituak daude *US Army*n. *Der Spiegel*eko Nicola Abék eskainitako “*Dreams in Infrared: The Woes of an American Drone Operator*” (Infragorritzko ametsak: AEBetako droneen pilotu baten atsekabeak) erreportajeak bildu ditu bost urtez milaka kilometrotara zeuden gizakiak hiltzen aritu den militar baten kontakizunak.

“Bost urte baino gehiagoz”, hasi du kontakizuna Abék, “Brandon Bryant lanean aritu da leihorik gabeko sala batean, erremolke baten tamainakoa, aire egokitua eten gabe 17 gradutan edukiz eta segurtasun neurriengatik aterik ireki gabe. Bryantek eta bere lankideek hamalau ordenagailu pantaila zeuzkaten aurrean eta lau teklatu. Bryantek botoia sakatu New Mexicon eta munduaren beste muturrean nor-

Argazki handia, AP agentziarena, *Japan Times*ek dauka eskegirik Interneten: 2013ko ekainean Afganistango Lora herrian AEBetako armadak piloturik gabeko hegazkinetik jaurtitako misil batekin lehertutako etxea. Barack Obamak sustatu duen gerra teknika berri honek protesta handiak piztu ditu mundu osoan, batik bat herrialde musulmanetan. Biktimez gain, *drone*en zaindaritzak ezarritako bizimodu itogarria salatzen dute. Australiako *Gizmodo* webguneak eskaintzen duen foto txikian ageri dira munduko edozein puntutan zainketa operazioak bezala eraso militarrek burutzen dituzten hegazkinak AEBetako lurretik kontrolatzen dituzten militar iparramerikarretako bi. Aurrean daukaten parafernaliak askoz gehiago dauka ikusteko bideojoko eta hegaldi simulatzaileekin benetako hegazkinen kabinekin baino. Horrelako gune batean aritua da lanean erreportajeak aipatzen duen Brandon Bryant.

bait hiltzen zen. (...) Horrelakoa da eskifaierik gabeko hegazkin baten burmuina. Militarrek ‘kabina’ deitzen dioten arren pilotuak ez dabil-tza airean hegan, kontrol tresnen aurrean eserita baizik”.

Etsaiaren 24 orduak

Militarrak gogoan du egun hura, bere hegazkina Afganistan gaineko zeruetan, kontrol salatik 10.000 kilometrorra. Ekranean ikus zezakeen ahuntzak gordetzeko etxola hura. Bryantek jaso zuen tiro egiteko agindua, txabolaren teilatua markatu zuen laserrez, alboan zeukan pilotuak sutu Predator hegazkinak zeraman Hellfire misila.

Hamasei segundo falta helburua lehertzeko. Hegazkinak kasernako monitoreetara bidaltzen zituen infragorritz hartutako irudiak, 2-5 segundoko atzerapenarekin. Zazpi segundo falta eta dena ondo. Hiru segundoren faltan ume hura agertu zen irudietan, Baghlan eta Mazari Sharif arteko herrixkan.

Leherketa. Haurraren arrastorik ez. Ondoez militarren sabelean. “Ume bat hil al dugu?” galdetu dio albokoari. “Bai, umea izango zen” erantzuna. “Umea zen?” idatzi dute monitoreko *chatean*. Orduan erantzun zuen ezagutzen ez zuten norbaitek, munduko beste nonbait erasoaren jarraipena egiten zuen



agintaritza militarren batetik: “Ez, zakurra zen”. Geroxeago Bryant eta bere lankideak karromatotik atera eta pantailatik begira eraso zuten herrialdekoekin zerikusirik ez zeukan paisaiak egingo zien ongi etorria.

Nicola Abéri gauzok kontatu dizkio Bryantek amaren etxeko salan. 27 urterekin armada utzita dauka. “Azken lau hilabeteotan nire ametsak ez dira infragorrietan”, esan dio kazetariari garaipen handi bat lortu balu moduan. AEBetako armadan eman dituen sei urteetan jende asko ikusi du hiltzen, gizon, emakume eta haur. “Sekula ez nuen usteko hainbeste jende hiltzerik. Egia esan, uste nuen inor hiltzeko ez nintzela gai izango”.

Kazetari izan nahi omen zuen. Baina unibertsitatean lehen kurtsua bukatzerako milaka dolarreko zorrak zeuzkan pilatuta. Soldadu sartzera zihoan adiskide bati laguntzera joanda enteratu zen armadak unibertsitatea badaukala, doakoa gainera. Sarrerako frogak ondo egiteagatik berehala sartu zuten informazio bilketako unitate batean.

Hogei urterekin lehenbiziko misioa, akordatzeko modukoa. Iraken egunsentia zen. Soldadu batzuk basera itzultzen ari ziren, Bryant zen haien zaindaria zeruan inguruminguru zebilen *drone*aren begiekin. Orduan ikusi zuen *begi* hura. Gudari etsaiek [*enemy combatants*] errepidearen zoruan gurgil bat ipini, kiskali,

horrekin asfaltoa urtu eta barruan paratzen dute leherkaria. Begia omen dirudi zerutik ikusita.

Bryantek eta lankideak ekipoko arduradunari abisatu zioten, honek zentralera. Baina konboiko ibilgai-luak bazetozen, zaindarien ezin abisatu... bere begiekin ikusi zuen bost soldatuak akabatu zituen leherketa. Hartatik sartu zen lanean burubelarri.

Eulitzar hiltzaileok inguruko base militarretatik aieratzen dituzte, ondoren haien kontrola AEBetan daudenei pasatzeko. Bryantek kontatu du nola behatzen zituzten jendeak airetik, egun osoan begira soroetan lanean ari zirenei, futbolearen jokatzaren zuten haurrei...

Gaua iritsitakoan, izpi infragorri egiten da zainketa. Bero handia egiten du Afganistanen, jendeak teiatu arinaren azpian egiten du lo. “Ikusten nituen beren emazteekin amodioa egiten. Infragorritzko bi tanta dira gero bakarra bilakatzen direnak”.

Gudari talibanak aste luzez espia-tzen zituen. “Azkeneko ezagutzen dituzu. Halako batean goitik agintzen dizuten arte tiro egitea”. Etxerakoan ohartzen zen zenbat haur utzi zuten umezurtz. “Ez zegoen sentimental jartzeko astirik”.

Gainez egin zuen arte. Ezin soportatu lana, ez bertako usaina, ezin lo egin lau ordu, ezin neska batekin harreman bat txukun mantendu, listuarekin odola botatzaren hasi. Medikuen diagnostikoak dio Bryant beteranoak trauma osteko estresa daukala. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Zer dio AEBetako ispiluak?

KRISIAK OKERRERA egin du Hego Euskal Herrian 2013an, eta hortik pentsa zitekeen protestarako arrazoiak sendoagoak direla. Eta akaso horrela izango da, baina azken greba orokorraren saioan ez da islatu, euskal gehiengo sindikalaren deialdiak aurrekoen erantzun bertsua izan du eta agian beherako joerarekin, grebari dagokionez behintzat. Mobilizazioetan erantzunak handia izaten jarraitzen du, eta milaka herritar ateratzen da kalera. Aurreikuspenen arabera, 2014ko egoerak okerrera egingo du herritarren gehiengoarentzat, baina gaitza izango da datorren urtean euskal gehiengo sindikalaren beste greba deialdi orokorrik ikustea, bestelako erantzunetan oinarritu beharko dira protesta eta alternatiba eskaerak.

Horrek ez du esan gura ez dau-denik arrazoiak protesta egiteko, bestelako ekonomia politikak aldarrikatzeko, baina bai esan gura du urteroko greba orokorraren moldeak seguruenik bere mugarekin egin duela topo. Eta esan gura du kalea bakarrik ez dela nahiko, behar dela konplizitatea kalea eta erakundeetan murrizketaren eredu okerretik aldendu gura duten guztien artean. Eta testuinguru honetan dator Urkullu lehendakaria, krisiari aurre egiteko akordio orokorrerako deiarekin, iturri askoren arabera PSErekin gauza daitekeena. Murrizketaren ereduaren aurkakoa bada, izango du sostengurik, baina orain arteko jarrerak ez dute halarik iradokitzen, besteak beste herritarrari akordio horien oinarriak edo proposamenak azaltzen ez zaizkiolako: nolako zerga erreforma egingo da? Zorpetzea handituko bada, non gastatzeko? Bultzatza liteke finantza erakundeek mailegua zentzuz eskaintzea? Zein-

tzuk dira gastu soziala blindatzeko neurriak? Nola bultzatuko da ekonomia soziala? Non daude azpiegitura erraldoietan inbertitzeko mugak? Zein tresna dituzte euskal instituzioek krisiari hobeto erantzuteko? Zeintzuk falta zaizkie? Erantzunak, epe laburrean ikusgai.

Eta erantzun sendoak beharko dira, oldarraldiaren tamaina ere halakoa izango da eta. Defiziterako aukera malgutuz, Europako Batasunetik zorpetzearen atea apur bat ireki zaie gobernuei, baina horren truke datorrena ez da txantxetako: murrizketa gehiago, zerga presio handiagoa herritarren bizkar, beste lan erreforma bat eta, besteak beste, pentsioen erreforma sakona, hauek murrizte aldera. Ongizate estatua suntsitzen jarraituko dela begi-bistakoa da, eta oraingoz, gure agintari nagusienei falta zaie onartzea hori gertatzen ari dela, eta hori ez datorrela uholde edo lurrikara baten gisan, atzean arrazoi zehatz eta argiak daudela.

FINANTZEN MUNDUTIK dator egungo krisia, hor kontsentsua zabala da, 2007ko udan hasi zen AEBetan eta gero mundu osora barreiatu zen, nagusiki herrialde garatuak, eta bereziki Europara. Finantza, aseguru eta higiezin burbuilen eztandak aldi berean eman ziren eta AEBetako datu honek ematen du neurriaren tamaina dirutan: 2007ko amaieran Wall Streeteko enpresetako liburutetan agertzen zen arrisku finantza deribatuen balioa 183 bilioi dolarretakoa zen, AEBetako ekonomiaren tamaina baino 13 aldiz handiagoa.

Finantza krisiari 700.000 milioi dolar gastatuz erantzun zion AEBetako Gobernu Federalak

(Irak eta Afganistango gerretan 3 bilioi euro). Bi ideia ziren erreskaterearen oinarrian: bankuak handiegia dira erortzen uzteko eta maileguaren iturria zabalduko dute egiazko ekonomian. Eta neurriak hartuko ziren finantzen mundua kontrolatzeko. Baina ez zen halarik gertatu. Iturri publikotik banku pribatueterako diru fluxua kontrolatu zuen erakundearen (TARP) inspektore nagusi Neil M. Barofsky-k operazioaren porrota onartu zuen 2011n: "Banku handiak, krisiaren aurretik baino %20 handiagoak dira eta gure ekonomiaren zati handiagoa kontrolatzen dute" (*Por el bien del imperio*. Josep Fontana). 2011ko uztailean, Market Watch erakundearen kalkuluen arabera, AEBetako finantzen munduan deribatuek 248 bilioi dolarreko balioa zuten, krisiaren aurretik baino gehiago.


Gero etorri ziren Erresuma Batua, Islandia, Irlanda, Grezia, Portugal, Espainia, Italia... bankaren erreskateetan gobernuek diru gehiago edo gutxiago inbertitzeaz gain, denetan antzeko prozesuekin. Zer egin da, oro har, finantzen mundua kontrolatzeko? Beren funtsak handitzera behartu dituzte, bankuen tamaina berdina edo handiagoa da eta mailegu fluxurik ez da. Baina dagoeneko ezer gutxi hitz egiten den horretaz guztiaz, gobernuek isilik dira, norbaitek zer egin litekeen eta zer ez aginduko balie moduan. Eta bitartean, zer erakusten du AEBetako ispiluak? Finantza erakundeak krisiaren aurretik baino indartsuago direla, herritarrak pobregao eta aberatsak aberatsago.

Horra Urkulluren akordio zabalak borrokatu beharrekoa. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1




Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2370. Argia)

KAFE ANTZOKIA

- Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)
- Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
- Jose Luis Ormaetxea Lasaga (Gasteiz)
- Gerardo Mendizabal Aizpuru (Hondarribia)

ARGIA KAMISETA

- Jose Maria Segurola Amutxastegi (Gasteiz)
- Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)

EKAINBERRI

- Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
- Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)
- Matxintxu aek Euskaltegia (Bilbo)

IRUÑAKO PLANETARIOA

- Jose Ramon Egiluz Ugarriza (Berriatua)
- Jaione Iurramendi Mendizabal (Ikaztegieta)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



Ekainak 6-7-8 Kursaal Jauregia

teknikariak · gizarte eragileak · ordezkari politikoak · herritarrak

herritarrekin

T O P A K E T A K



Gipuzkoa
BERRIA

HERRITARRENTZAT HITZALDIAK

19:30-21:00

SARRERA LIBREA



Zeinu
hizkuntza
interpretazioa

6

Mundu berri bat eraikitzen: bide berriak

MARTA HARNECKER

7

*Herritarren partaidetza Islandiako
Konstituzioa berrikusteko prozesuan*

VALGERÐUR BJARNADÓTTIR
ÁSTRÓS SIGNÝJARDÓTTIR

*Herritarren lege ekimenak eta tokiko herri galdeketak
Alemanian, udal mailan eta laender-etan*

THEO SCHILLER

www.gipuzkoaherritarrekin.net

